

**2022KO MAIATZAREN 26AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita seia

**HILABETEA:** Maiatza.

**URTEA:** Bi mila eta hogeita bi

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa.

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** LEIRE ARTOLA UGALDE

**BILDUAK:**

EAJ-PNV

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA (EAJ-PNV)
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

**ETORRI GABEAK:**

EAJ-PNV

- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO

**IDAZKARIA:** Itziar Aroztegui Apaolaza

Bileran ere parte hartu du Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak.

Bapateko itzulpen lanetan Idoia Noble andrea ibili da Traductores e interpretes S.A.ren enpresakoa.

**1.- AURREKO AKTA.** 2022-05-05.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da.

**2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

a.- KREDITU ALDAKETA. 9. KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA.  
2022CRAD0009

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, Antolakuntza batzordean tratatutakoa, hau da:

**“GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA**

*Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.*

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
0261.227.340.00.99	Antzizar kiroldegia: kudeaketa	170.500,00	136.730,00	307.230,00
0220.227.231.10.99	Etxeetarako asistentzia	567.000,00	37.300,00	604.300,00
0220.227.231.20.99	Eguneko zentroa	351.000,00	10.600,00	361.600,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.088.500,00</b>	<b>184.630,00</b>	<b>1.273.130,00</b>

**GAIA.- Kreditu Aldaketa. 9. Kreditu Gehigarrien Espedientea.**

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastua egin beharra izanik eta hau finantzatzeko aurrekontu krediturik ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 5. Kreditu gehikuntzen bidez 184.630,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:

**GASTUEN GEHIKUNTZA**

<i>Kap.</i>	<i>Izena</i>	<i>Euro</i>
2	Ondasun arrunten erosketak	184.630,00
<b>GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO</b>		<b>184.630,00</b>

**SARRERAK**

<i>Kap.</i>	<i>Izena</i>	<i>Euro</i>
8	Finantza aktiboak	184.630,00
<b>FINANTZIAZIOA</b>		<b>184.630,00</b>

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

<i>Sarreraren kontzeptuak</i>	<i>Baliabidearen kontzeptua</i>	<i>Sarrera handiagoak</i>
870.01	Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	184.630,00
<b>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>184.630,00</b>

Alkate andreak (EAJ-PNV) adierazi du, bi proposamen bezala tratatuko direla: alde batetik, Antzizar kirolegia kudeaketarekiko kreditu gehikuntza eta bestea etxeetarako asistentzia eta eguneko zentroa.

**a.1) Antzizar kirolegia kudeaketarekiko kreditu gehikuntza**

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Anteriormente ya hemos mostrado nuestra posición sobre estas modificaciones. Entendemos que son gastos que hay que realizar. Creo que de lo propuesto 50.000,00 € van para el pago de energía eléctrica y esperamos que con la próxima licitación sean gastos que no haya que asumirlos. Lo entendemos y estamos a favor.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Beno azken aldi hauetan, abonatu kopurua apurka-apurka gora doan arren, energia kostuak ere modu nabarmenean igo dira eta horrek hilabetez hilabete konpentsatzekoa igo egin du.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Egin beharrekoak dira baina aukera paregabea galdu da kiroldegia beste modu batean kudeatzeko. Martxoko faktura 50.000 eta orain esaten ari gara hemendik uztailaren 1erarte, 136.000 €ko energia kostua gehigarria egongo dela. Beti esan dugu kiroldegiaren tamaina desproporzionatua dela eta mastodonte bat dela. Aurreko plenoan kiroldegiko teilatuan plaka fotovoltaikoak jartzea onartu zen eta Eztrandako beroa aprobetxatzeko sistema energia gastuak aurrezteko, baina ez da aztertu gastu horiek gutxitzeko zerbait egiteko aukera dagoen ala ez. 1.700 inguru bazkide galtzetik gatoz, diru sarrerak gutxiago dira erabiltzaileak gutxiago direlako, zerbitzu berdina ematen ari gara, metro kubiko berdinak ari gara berotzen eta energia kostuak, egoera orokorrak eraginda, gora eta gora doaz. Uste dugu lizitazio berrirako aukera badagoela gauzak berplanteatzeko. Guk horregatik aparte bozkatzea eskatu dugu. Puntu honetan abstenitu egingo gara.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Esan dituzunei eutsiz egia da energia gastua asko igo dela eta ahaleginak egiten ari gara kostu hori jaisteko. Hemendik gutxira kiroldegiko teilatuan plaka fotovoltaikoak jarriko dira eta horrekin kiroldegian den energia bermatuko dugu modu jasangarrian eta Eztrandako beroketa aprobetxatuz energia termikoa lortzeko aukera lantzen ari gara eta horretarako Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatuko dugu. Momentu honetan udal eraikinetan kiroldegia da kostu handia duena baina abonatuaren kopurua jaitsi arren, bakarrik ateak irekitzeak badu energia kostuak eta ezer gutxi egin dezakegun. Gertatzen dena da gaurko datuak bihar ez dutela balio eta hori da, hain zuzen ere, azkeneko lizitazioan gertatutakoa. Ustez bideragarria izan zitekeen proiektu bat ez zen inorentzat bideragarria izan eta hemendik aurrera ere horrelako zerbait martxan jartzen dugunean horrelako zerbaitekin aurkitu gintezke. Udal eraikina izanik eta udal zerbitzua ematea nahi badugu, nahitaez bizi dugun egoeran kostu horiek asumitu beharrean gaude. Mastodonte diozu. Ba gure aurrekoek erabaki zutena izan zen eta zuek ere tarteko izan zineten, behintzat EH Bildun zaudetenak. Horrez gain esan COVID-ekin bi urte pasatu ditugula baina azken urteetako bilakaerak argi uzten zuen beasaindarrok nahi zuten kiroldegia dela. Hori horrela, gu kreditu aldaketa honen alde eta beharra ikusten dugu bertako gastuak sufragatzeko eta ordaintzeko eta alde bozkatu dugu.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Ez gaude ohituta autokritika egitea, baina nire ustez kiroldegi horretan metro kubiko asko daude oso gutxi erabiltzen direnak eta denok dakigu zenbat diru gastatu behar den energia kostuak estaltzeko. Badaude aukerak beste interbentzio mota batzuk egiteko gastuak murrizteko. Esan duzu EH Bilduk parte hartu zuela baina oso oker ez banago kiroldegi hori egitea erabaki zen plenoetan ezker abertzalea erabat ilegalizatuta zegoen. Ez dut uste inolako bozka ofizialik emango zuenik.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “EH Bildu esan dut. Ez dut ezker abertzalea esan. Bertako alderdi kide batek buruzagitza izan zuen eta lidergoa kiroldegiaren gestioan.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Ez dut uste momentu hartan pertsona hori ezker abertzalekoa zenik.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da, Antzizar kiroldegia kudeaketarekiko kreditu gehikuntzari dagokionean.

#### a.2) Etxeetarako asistentzia eta eguneko zentrorako kreditu gehikuntza

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Guri gehikuntza hau oso ondo iruditzen zaigu baina gure ustez dena ez da dirua, orain zein zerbitzu motako zerbitzua eskaini nahi dugunarekiko beste lanketa bat geratzen zaigu. Aurkeztu zaizkigun lehenengo zirriborroak kezka batzuk sortzen dizkigu eta orain bigarren fase bat geratuko litzateke.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Batzorde informatzailean lizitazio berriaren zertzeladak eman ziren eta atzo ere alderdi politiko guztiekin horren inguruko monografiko bat egin genuen eta zuen zalantzak eta iradokizunak aurkezteko epea irekita dago eta ikusiko dugu bidean zer aurkitzen dugun.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

#### b.- KREDITU EZ ERABILGARRIA IZENDATZEA. 2022EKBO0070

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, Antolakuntza batzordean tratatutakoa, hau da:

*GAIA.- "Kreditu ez erabilgarria" izendatzea.*

*1.-Igartzako futbol zelaiko belarra aldatzeko kontratua esleitu aurretik dagokion gastua finantzatzen duten baliabideak benetan ziurtatuta egotearen beharra edota sortuko litzatekeen aurrekontu defizita estaltzeko modua egitearen beharra adieraziz igorri da txostena.*

*2.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 40. artikuluan arautzen du aurrekontu-kredituen egoera:*

*« 40. artikulua. Aurrekontuko kredituen egoera, eta gastuen aurrekontua exekutatzeko faseak.*

*1. Aurrekontuko kredituak egoera hauetako batean egon daitezke:*

- a) Kreditu erabilgarriak.
- b) Erabili gabeko kreditu atxikiak.
- c) Kreditu ez-erabilgarriak.
- d) Kreditu erabiliak.

*Printzipioz, gastuen aurrekontuan edo haren aldaketetan onartuta dauden kreditu guztiak erabilgarritzat hartzen dira. Egoera horretatik aurrera, aurrekontu kredituek har ditzaketen beste hiru egoeretako batean gera daitezke, hau da, edo atxikiak edo ez-erabilgarriak, edo, bestela, gastu bat baimendu daiteke, eta, horrela, gastua exekutatzeko prozedura abiatzen da.*

*Kreditu baten ez-erabilgarritasuna gertatzen da aurrekontuko partida batek duen kredituaren saldo osoa edo haren zati bat ibilgetzen denean, hau da, hura ezin dela erabili deklaritzen denean. Ez-erabilgarritasunaren deklarazioak ez du deuseztatuko kreditua, baina ez-erabilgarritzat hartutako saldoaren largura ezin izango da baimendu inolako gastu edo transferentziarik, eta haren zenbatekoa ezingo da txertatu hurrengo ekitaldiko aurrekontuan. Kredituen ez-erabilgarritasuna deklaratzeko eta haiek berriro erabilgarritzat jotzea entitateko Osoko Bilkurari dagokio.”*

*Azaldutakoa ikusirik, eta ez dagoenez ziurtasunik aurreikusitako gastuari lotutako dirulaguntzak kontratua esleitu aurretik finkatu ahal izango daitezkeenik, kopuru berean gastua gutxitzea proposatzen da eta Udalbatzari aurkezten zaio ondorengo*

## **PROPOSAMENA**

*“Kreditu ez erabilgarria” izendatzea “0390.601.171.00.01 Naturbideak Loinaz” kontusailaren kreditua 230.000,00 euroko kopuruan, Igartzako futbol zelaiko belarra berritzeko lanek eragindako gastuari lotutako eta aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntzen zenbatekoaren berdina.*

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Estamos a la espera de que se aprueben algún tipo de ayudas por parte de Diputación, pero es un gasto que debemos asumir porque el cambio de césped del campo de fútbol es necesario. Estamos a favor.”

Hasier Agirre Elkorberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Guk gai honekin batzordean ere adierazi genuen zein den gure kezka nagusia. Belar aldaketa beharrezko da baina Loinatz futbol zelaian gertatu zena berriro gertatzeko arriskua dagoela iruditzen zaigu. Orduan diru-laguntzarik jaso gabe geratu zen Beasaingo udala eta honen abiapuntua berdina da. Ahoz hitz egindako diru laguntza batzuetaz ari gara. Gure ustez presa eta inprobisazioa dago. Komunikabideetan ere azaldu zen diru natur bidetik kentzen dela eta horrek ere adierazten du zer nolako kudeaketa eramaten ari den. Abstenitu egingo gara, batez ere, aipatutako kezka dugulako.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Presa eta inprobisazioa aipatu dituzu baino egitekotan udaran egin beharrezkoa da. Bestela hurrengo urteko udaran izango litzateke. Egindako kudeaketaren ondorioz, bi diru laguntza esparru lortzeko aukera ikusten dugu eta horregatik gu ari gara prestatzen posible izan dadin udaran belar aldaketa hori egitea. Zinez pentsatzen dugu ordurako izango dugula bileragile hauek konpromisoa diru-laguntza hori eskaintzeko. Publiko egin genuen bai, baina horrek ez du esan nahi proiektu hori deuseztatu egiten dugunik, momentuz ez erabilgarri bezala aitortzen da. Natur bidea proiektuak jabe askoei eragiten die eta jabeekin akordioetara iristea ez da epe motzean lortu daiteken zerbait. Beraz, 2022an ez dugu erabat argi ikusten proiektu hori gauzatuko denik. Aukera dagoenean bide berde hori egiteko asmoarekin jarraitzen dugu.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Iruditzen zaigu publikoki batzar areto honetan konpromisoak hartu direla eta beti esan da obra hori dirulaguntzaren baitan dagoela. Pauso bat ematea goaz ezer ofiziala ez denean. Loinatz futbol zelaiaren gertatutakoa errepikatzen bada arduradun batzuk izango ditu. Azkeneko aktan datorrena irakurriko dut: "dirulaguntzarik ezean ez genukeela belar aldaketa proiektua aurrera eramango". Gure ustez tamalgarria izango litzateke kudeaketaren ondorioa."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Proiektua egitekotan udaran behar du eta ordurako erantzun bat izango dugulako ustetan gaude. Horrekin jokatu dugu. Ikusirik besterik ez dago Beasain kirol elkartean eta Goierri Gorriren artean mugitzen dituzten ume kopurua fisikoak sustatzen. Horregatik egitekotan udaran behar du."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, proposamena gehiago osoarekin onartu da.

c.- ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEA. BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA. 2022PEBO0049

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordearen proposamena:

"ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA. BEASAINGO UDALA.

*AURREKINAK*

*Euskal Administrazio Publikoetako langileen kudeaketak, 16/1997 Legeak aldatutako Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea aldarrikatu zenetik, eta zehazkiago, 190/2004 Dekretuaz geroztik (lanpostuak betetzeko sistemak batera arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena), arrazionalizazio-programak izeneko tresna juridikoa dauka, giza baliabideen kudeaketa arinagoa eta malguagoa ahalbidetuko duena, eta administrazio horiei dagozkien berezitasunetara egokitu beharko dira. Horren aurretik, aukera hori ere ematen zen, abuztuaren 2ko 30/84 Legearen 15. artikulua eta hurrengoak eta Gehigarria Hogeita batgarrena.- Horri dagokionez, abenduaren 29ko 22/93 Legeak zati batean aldatu zuen; ondoren, estatutupeko langileentzako oinarriek eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginean lan-kontratudun langileentzat ezarritako arauak aldatu zuten (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 69. artikulua).*

*Tresna horiek zerbitzu publikoak emateko administrazio-erakunde egokiak lortzeko helburuarekin sortzen dira, giza baliabide egoki eta ezinbestekoekin. Arrazionalizatzeko programak aipatutako ondorioetarako beharrezkoak diren antolamendu-soluzioak*

*gaitzen dituzten benetako esparruak dira, eta, horretarako, aurreikuspen eta neurri sorta zabala biltzen dute, bai integralak bai antolakuntzako sektoreetara mugatuak.*

*Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak bere hitzaurrean adierazten duenez, Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 11. atalean, Herri Administrazioen Modernizazioari buruzkoan, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteari buruzko erreforma jasotzen da.*

*Erreforma horretan aurreikusitako lehenengo jarduera giza baliabideen eraginkortasuna hobetzeko neurriak hartzea da, behin-behinekotasun maila handiak murriztuz eta administrazio publikoetako giza baliabideen kudeaketa malgutuz.*

*Erreformaren helburua da egiturazko behin-behinekotasun-tasa ehuneko 8tik behera kokatzea Espainiako administrazio publiko guztietan, eta erreformak hiru dimentsio ditu: dagoen behin-behinekotasun handia konpontzeko berehalako neurriak hartzea, etorkizunean behin-behinekotasunean abusua eta iruzurra prebenitu eta zigortzeko neurri eraginkorrak hartzea, eta, azkenik, giza baliabideak hobeto kudeatzeko tresnak eta plangintzaren kultura sustatzea.*

*lido horretan, azpimarratu behar da. Beasainko Udalak, gaur egun, 20/2021 Legean ezarritako % 8ko tasa gainditzen du langile-plantillan.*

*Beasainko Udala Giza Baliabideen Sailak egindako analisisian du jatorria arrazionalizazio-programa honek, abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoak, 2. artikuluan ezarritakoa aplikatuz*

*Ondorengo arrazionalizazio Programa postuak egonkortzeko sindikatu ordezkariekin adostu da (2022ko martxoaren 10, apirilaren 12 eta maiatzaren 11ko aktak)*

## **OINARRI JURIDIKOAK**

*Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 69.2 artikulua ezartzen du administrazio publikoek aukera dutela giza baliabideak antolatzeke planak egiteko.*



*Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, 22. artikuluan, bere burua antolatzeko duen gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatuta, giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onartu ahal izango ditu, bere berezitasunei egokituak eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak lldo beretik, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeko Araudiaren 41. artikulua (Eusko Jaurlaritzaren urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren eranskin gisa ageri da) aurreikusten duenez, euskal administrazio publikoek, beren burua antolatzeko ahalmena baliatuz eta langileen ordezkariekin negoziatuta, giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onartu ahal izango dituzte, beren berezitasunei egokituak eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak, beren gobernu-organoek finkatzen dituzten jarraibideen barruan.*

*Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikulua agintzen du aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak zabaltzeko beharra, egungo egoera arintzeko berehalako neurri gisa, enplegu publikoa egonkortzeko hirugarren prozesu bat baimenduz.*

*Seigarren xedapen gehigarriaren arabera, Administrazio Publikoek, salbuespen gisa eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 61.6 eta 7. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, lehiaketa-sistemaren bidez, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen, 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak beteta, aldi baterako etenik gabe beteta egon diren plazak deituko dituzte.*

*Antolakuntza Batzordeak 2022ko maiatzaren 19an egindako saioan, Osoko Bilkurara ondorengoa luzatzeko akordioa hartzen du,*

*Akordio Proposamena*

*Lehenengoa.- Beasaingo udaleko aldi baterako enplegua egonkortzeko Giza Baliabideak arrazionalizatzeko programa onartu (1 Eranskina).*

*Bigarrena.- Langile Batzordeko kideei berri eman.”*

**BLOQUE 1. PLAZAS SUSCEPTIBLES DE ESTABILIZACIÓN, EN BASE A LO ESTABLECIDO EN EL ARTÍCULO 2.1. DE LA LEY**

IDENTIFICACIÓN DE LA PLAZA (Denominación)	JUSTIFICACIÓN DE LA ESTRUCTURALIDAD (Funciones)	PERIODO DE PROVISION DE LA PLAZA.- HISTÓRICO DE FECHAS (Identificando interrupciones) (Plazas estructurales, ocupadas temporal e ininterrumpidamente al menos en 3 años anteriores a 31/12/2020).	RELACIÓN ININTERRUMPIDA DEL PERSONAL TEMPORAL O INTERINO (Histórico)	PUESTO EN RPT: SI/NO	DOTACIÓN PRESUPUESTARIA: SI/NO	INDEFINIDO NO FIJO: SI/NO  SENTENCIA: SI/NO
COD.1402 TÉCNICO/A INFORMÁTICO/A  NOMBRAMIENTO FUNCIONARIA INTERINA	PUESTO ESTRUCTURAL RPT	30/10/2017 - actualidad: Nombramiento Funcionaria interina hasta provisión definitiva de la plaza (100%)	RELACIÓN TEMPORAL DESDE EL 30/10/2017 DE FORMA ININTERRUMPIDA	SI	SI	NO

**BLOQUE 2. PLAZAS SUSCEPTIBLES DE ESTABILIZACIÓN, EN BASE A LO DISPUESTO EN LA DISPOSICIÓN ADICIONAL 6ª DE LA LEY**

IDENTIFICACIÓN DE LA PLAZA (Denominación)	JUSTIFICACIÓN DE LA ESTRUCTURALIDAD (Funciones)	PERIODO DE PROVISION DE LA PLAZA.- HISTÓRICO DE FECHAS (Identificando interrupciones) (Plazas estructurales, ocupadas temporal e ininterrumpidamente con anterioridad a 01/01/2016).	RELACIÓN ININTERRUMPIDA DEL PERSONAL TEMPORAL O INTERINO (Histórico)	PUESTO EN RPT: SI/NO	DOTACIÓN PRESUPUESTARIA: SI/NO	INDEFINIDO NO FIJO: SI/NO  SENTENCIA: SI/NO
COD.1205 AUXILIAR ADMINISTRATIVO  CONTRATO LABORAL TEMPORAL	PUESTO ESTRUCTURAL RPT		RELACIÓN TEMPORAL DESDE EL 17/06/1992 DE FORMA ININTERRUMPIDA	SI	SI	NO

COD. 1405 ADMINISTRATIVO/A  CONTRATO LABORAL TEMPORAL	PUESTO ESTRUCTURAL RPT		RELACIÓN TEMPORAL DESDE EL 22/01/2007 DE FORMA ININTERRUMPIDA	SI	SI	NO
COD. 2104 ADMINISTRATIVO/A DE ADMINISTRACIÓN GENERAL  CONTRATO LABORAL DE INTERINIDAD	PUESTO ESTRUCTURAL RPT		RELACIÓN TEMPORAL DESDE EL 01/07/2015 DE FORMA ININTERRUMPIDA	SI	SI	NO
COD. 3400 TÉCNICO/A DE COMERCIO  CONTRATO LABORAL INDEFINIDO	PUESTO ESTRUCTURAL RPT		RELACIÓN TEMPORAL DESDE EL 27/09/2005 DE FORMA ININTERRUMPIDA	SI	SI	SI SI Sentencia 139/06 indefinido parcial al 45,45 % de jornada

**BLOQUE 3. PLAZAS SUSCEPTIBLES DE ESTABILIZACIÓN, EN BASE A LO DISPUESTO EN LA DISPOSICIÓN ADICIONAL 8ª DE LA LEY**

IDENTIFICACIÓN DE LA PLAZA (Denominación)	JUSTIFICACIÓN DE LA ESTRUCTURALIDAD (Funciones)	PROVISIÓN DE LA PLAZA.- HISTÓRICO DE FECHAS (Identificando interrupciones) (Plazas vacantes y estructurales, ocupadas de forma temporal por personal con una relación, de esta	RELACIÓN ININTERRUMPIDA DEL PERSONAL TEMPORAL O INTERINO (Histórico)	PUESTO EN RPT: SI/NO	DOTACIÓN PRESUPUESTARIA: SI/NO	INDEFINIDO NO FIJO: SI/NO  SENTENCIA: SI/NO
--	--	--	---	----------------------------	--------------------------------------	---

		naturaleza, anterior al 1 de enero de 2016).				
COD. 3509 PROFESOR/A DE MUSICA (FLAUTA)  LABORAL INDEFINIDO NO FIJO DISCONTINUO	PUESTO ESTRUCTURAL RPT		RELACIÓN TEMPORAL DESDE EL 07/09/2012 DE FORMA ININTERRUMPIDA (EN ESTE CASO LAS INTERRUPCIONES COINCIDEN CON EL CURSO ESCOLAR, POR TRATARSE DE UN PUESTO DE TRABAJO DOCENTE)	SI	SI	SI SI personal fijo discontinuo en cumplimiento de sentencia nº 138/98, de fecha 06/04/1998, dictada por el Juzgado de lo social nº 4 de Donostia
COD. 3512 PROFESOR/A DE MUSICA (GUITARRA)  LABORAL INDEFINIDO NO FIJO DISCONTINUO	PUESTO ESTRUCTURAL RPT		RELACIÓN TEMPORAL DESDE EL 02/11/1993 DE FORMA ININTERRUMPIDA (EN ESTE CASO LAS INTERRUPCIONES COINCIDEN CON EL CURSO ESCOLAR, POR TRATARSE DE UN PUESTO DE TRABAJO DOCENTE)	SI	SI	SI SI personal fijo discontinuo en cumplimiento de sentencia nº 394/01, de fecha 24/09/2001, dictada por el Juzgado de lo social nº 4 de Donostia
COD. 3513 PROFESOR/A DE MUSICA (LENGUAJE MUSICAL - PIANO)	PUESTO ESTRUCTURAL RPT		RELACIÓN TEMPORAL DESDE EL 01/10/1993 DE	SI	SI	SI SI personal indefinido

LABORAL INDEFINIDO NO FIJO DISCONTINUO			FORMA ININTERRUMPIDA (EN ESTE CASO LAS INTERRUPCIONES COINCIDEN CON EL CURSO ESCOLAR, POR TRATARSE DE UN PUESTO DE TRABAJO DOCENTE)			discontinuo en cumplimiento de sentencia nº 217/01, de fecha 15/05/2001, dictada por el Juzgado de lo social nº 3 de Donostia
COD. 3514 PROFESOR/A DE MUSICA (LENGUAJE MUSICAL - ACORDEON)  LABORAL INDEFINIDO NO FIJO DISCONTINUO	PUESTO ESTRUCTURAL RPT		RELACIÓN TEMPORAL DESDE EL 01/10/1993 DE FORMA ININTERRUMPIDA (EN ESTE CASO LAS INTERRUPCIONES COINCIDEN CON EL CURSO ESCOLAR, POR TRATARSE DE UN PUESTO DE TRABAJO DOCENTE)	SI	SI	SI SI personal indefinido discontinuo en cumplimiento de sentencia nº 437/01, de fecha 02/10/2001, dictada por el Juzgado de lo social nº 3 de Donostia

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Balorazio bat egin nahi genuke eta honek ere balio izango luke hurrengo bi puntuetarako. Gai honekin erabili den metodologia positibotzat ematen dugu. Partehartzailea eta gerdena izan da eta lanketa bat egon da. Hau da guk hasieratik hainbat gaiekin eskatzen genuena. Ea hemendik aurrera beste gai batzuekin ere errepikatzen den. Bestalde, langile-batzordeekin eta langileekin banan-banan egin den prozesua ere ontzat ematen dugu eta iruditzen zaigu giza baliabideak pausoak ondo eman dituztela. Lehenengo fasea honekin amaitzen da, baina orain beste fase bat dugu eta horretarako sei hilabete ditugu oinarriak prestatzeko eta eskatuko genuke metodologia berdinarekin jarraitzea. Honek, udalaren behin behinekotasuna arintzen laguntzen du baina aldi berean erakusten digu salatzen ditugun plantilako hutsuneak, hala nola, arkitekto plaza, ingurune teknikaria, gaztedi teknikaria...Badaude behar batzuk eta horretarako lanketa egiteko gonbidapena luzatzen dugu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Esan duzun bezala, hau kronograma baten lehenengo fasea besterik ez da. Ekainaren 1a baino lehen lan-eskaintza onartzea eta argitaratzea tokatzen da. Gero, urte bukaera baino lehen lanpostuen deialdiak argitaratu behar dira eta 2024ko abendua baino lehen prozedura amaitzea. Lan karga handia suposatzen du honek eta esaten den bezala metodologian hala uzten duenean, zeren eta beti ez da posible izaten, positiboa da eman izan den prozedura. Aurrerantzean ere horrela jarraitu nahi dugu, prozesuak gardenak izan daitezen, ez dugu inolako zalantzarik. Hau da egonkortze prozesua eta bestetik ere badugu plantila eta lanpostuen zerrenda. Hemen ere konpromiso batzuk hartu ziren, aztertzen hasteko batik bat Lurralde eta Herritarren sailak berrantolaketakarako aukerak ikusten ditugulako. Orain egonkortze prozesu honen bigarren fasea dugu eta hor ere izango dugu aukera lantzeko eta proposamenak egiteko.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

#### d.- LANPOSTU BERRIEN MONOGRAFIAK ETA BALORAZIOAK. 2022PEBO0049

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

“GAIA: LANPOSTUEN BALORAZIOA

#### AURREKINAK

*Abenduaren 28ko 20/2021 Legea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa, indarrean sartzearen ondorioz, aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarri bat baimentzen da. Tasa horretan, administrazio publikoetan dauden egiturazko lanpostuak sartuko dira, lanpostu-zerrenden, plantillen edo giza baliabideak antolatzeko beste modu baten barruan egon edo ez.*

*Horren haritik, Beasaingo Udalak egoeraren azterketa egin du eta Giza Baliabideak arrazionalizatzeko plan bat idatzi du, lanpostuen zerrendan dauden baina plantilla organikoan ez dauden lanpostu batzuk egonkortzeko.*

*Denboraldiko postuak egonkortzeko arrazionalizazio plana sindikatu ordezkariekin negoziatua izan da ( 2022ko martxoak 10, apirilak 12 eta maiatzaren 11ko aktak).*

*Horretarako, plazak eratu behar dira, eta, ondorioz, lanpostuaren monografia eta balorazioa onartu.*

Hona hemen sortuko eta baloratu behar diren plazak:

Administrari plaza 1.

1. eranskinean erantsi da Antolaketa eta Giza Baliabideen Azpisaileko Administrari postuaren monografia.

Lanpostuaren ezaugarrien proposamena Beasaingo Udaleko administrari lanpostu orokorretan jarraitzen direnak dira, lanpostuen azken balorazioaren eta udal-erakundeen ordainsarien esparruaren ondorioz.

Taldea: C1 taldea

Eskala: Administrazio Orokorra

Azpieskala: Adminitratiboa

Lanpostu-mailako osagarria: 17

Berariazko osagarria: 16.582,31 €

Administrari Laguntzaile plaza 1.

2. eranskinean erantsi da administrari laguntzailearen postuaren monografia Idazkaritza Azpisailan.

Plazaren ezaugarrien proposamena, Beasaingo Udaleko, orokorrean Administrari Laguntzaile lanpostuetan jarraitzen direnak dira, administrari orokorra, lanpostuen azken balorazioaren eta udal-erakundeen ordainsarien esparruaren ondorioz.

Taldea: C2 taldea

Eskala: Administrazio Orokorra

Azpieskala: Adminitratiboa

Lanpostu-mailako osagarria: 17

Berariazko osagarria: 15.528,26 €

Merkataritzako teknikari plaza 1.

3. eranskinean erantsi da Merkataritza teknikari-postuaren monografia, Kultura, Euskara eta Merkataritza Azpisailan.

Lanpostuaren ezaugarrien proposamena euskara-teknikarien lanpostuetan jarraitzen direnak dira erreferentzia moduan, lanpostuen azken balorazioaren eta udal-erakundeen ordainsarien esparruaren ondorioz.

Taldea: A2 taldea

Eskala: Administrazio Orokorra

Azpieskala: Zerbitzu berezia teknikoa

Lanpostu-mailako osagarria: 19

Berariazko osagarria: 19.001,45 €

Proposamenak aurkeztuak izan dira Balorazio mahaiena eta Bertaratutakoek aho batez onartu dute emaitza (2022ko maiatzaren 11ko akta.

Goian aipatutako aurrekariak ikusi eta gero, Antolakuntza Batzorde honek, arlo honetan eskumena duen organoari eramaten dio ondorengo:

#### AKORDIO PROPOSAMENA

Lehena.- Proposamen honi erantsita doazen eta aipatu diren postuen monografiak onartzea.

Bigarrena.- Proposamen honen aurrekarietan jasotako baldintza berdinetan, ondorengo postuen balorazioak onartzea:

- Antolakuntza eta Giza Baliabide Azpisaileko Administraria.
- Idazkaritza Azpisaileko Administrari Laguntzailea (uGunea)
- Kultura, hizkuntza Politika eta Merkataritza Azpisaileko Merkataritza Teknikaria.”

#### MONOGRAFIAK

##### POSTUAREN MISIOA: ANTOLAKUNTZA ETA GIZA BALIABIDE ADMINISTRARIA

Antolakuntza eta Giza Baliabidetako Arduradunak zuzenduta eta ikuskatuta, Zerbitzuari laguntza administratiboa ematea, gaien kudeaketan eta tramitazio administratiboan parte hartuz: Izapideen katalogo mantenimendua, Gardentasuna ataria administrazioa, NISAE elkarreragintasuna sistemaren mantenimendua, Dirulaguntzen Estatuko datu basea administrazioa, espediente kudeaketa sistemaren mantenimendua, langileen kudeaketa administratiboan laguntza.

IDENTIFIKAZIOA					BALDINTZAK							
L.H.	P.M.	DED.	HOR.	ADM.	TALDEA	ESK.	AZPIESK.	MOTA	TITUL.	H.E.	BESTE BATZUK	OHARRAK
F	ES	%100	LO	Bea.Ud.	C1	AO	A		*	3		

\*

Batxilergoko edo Erdi Mailako Lanbide Heziketako titulua, LHko teknikaria, Goi Mailako Batxilergoa, LH2 edo baliokidea.

##### PARTE HARTZEN DUEN PROZESUAK / AZPIPROZESUAK

- Izapideen katalogo mantenimendua
- Gardentasuna ataria administrazioa
- NISAE elkarreragintasuna sistemaren mantenimendua,
- Dirulaguntzen Estatuko datu basea administrazioa,
- Espediente kudeaketa sistemaren mantenimendua,
- Langileen kudeaketa administratiboan laguntza.



OINARRIZKO ERANTZUKIZUNAK

**LANPOSTUAREN ERANTZUKIZUNAK:**

---

**Antolakuntza administrazioan**

- *Izapideen katalogo mantenimendua. Herritarren zuzendutako informazioa fitxen eguneratzea azpisalikein koordinatuta. Eskaera orriak eguneratu.*
- *Gardentasuna ataria administrazioa. Udaleko azpisailek gardentasuna infomazioa bideratu Gipuzkoa ataria plataformara.*
- *NISAE elkarreragintasuna sistemaren mantenimendua. EAEgoko Elkarreragintasuna bideratzen duen plataforma, erabiltzaleak altan eman, baimenak sortu, plataformaren zerbitzuaetara baimenak eskatu eta azpisailletara zabadu erabilpena.*
- *Dirulaguntzen Estatuko datu basea administrazioa. Udalean onartzen diren dirulaguntzak Estatuko dirulaguntza datu basera igorri eta publikatu oinarriak eta derrigorrezko dokumentuak.*
- *Espediente kudeaketa sistemaren mantenimendua. Gaur egun ESKUA plataformaren administrazioa. Azpisailekin koordinatu, izapideen urratsen tipifikazioa, aldaketak, plantillak eta inzidentzien kudeaketa.*
- *Informatika gaietan laguntza administratiboa eskaini eta ofimatika eta intzidentziak jaso eta bideratu.*

**Giza Baliabide kudeaketan administrazioa laguntza**

- *Pertsonala eta nomina administrariarekin lankidetzan aritzea legezko epearen barruan hauek egiteko eta tramitzeko: afiliazioak, lan istripuen parteak eta Lan Ezintasuneko aldien kontrola, bizitza aseguruak eta bestelakoa eta abar, eta Gizarte Segurantzaren edo dagokien beste erakundeetan egin beharreko gestio administratiboak egitea.*
- *Pertsonala eta nomina administrariarekin lankidetzan aritzea nomina egiten eta kontrolatzen: nominak egiaztatu, inprimakiak prestatu banatzeko, nominako kontzeptuak kalkulatu.*
- *PFEZ-en konturako hiru hileko eta urteko atxikipen ereduak betetzea eta tramitzea, bai lan errendimendu eta jarduera ekonomikoari buruz, bai hiri ondasun higiezinak alokatzetik datozenei buruz.*
- *Pertsonala eta nomina administrariarekin ezarritako jarraibideei jarraituz, oportetako espedientearen tramitazioa gauzatzea: inprimakiak banatu, eskaerak datu basean sartu, baimen txostena egin, baimenak banatu, datuak presentzia kontrolatzeko programan sartu, oportetako kontrola eta abar.*
- *Hainbat erakunderentzako egiaztagiria egitea (Gizarte Segurantzaren, INEM, Pakea, oposizioak eta abar).*
- *Hainbat agiri INEM, Gizarte Segurantzaren, Correos; Banku Entitate eta abarretara eramatea.*
- *Langileak hautatzea:*
- *Antolakuntza eta Giza Baliabideko Arduradunak ezarritako jarraibideen arabera, langileak hautatzeko prozesuei lotutako tramite administratiboak egitea: oinarriari buruzko informazioa biltzea, oinarriak transkribatzea, horiek izendatutako komunikabideetan argitaratzeko gestioak*

egitea, hautagaien ezaugarriak azterzea eta egiaztatzea, hautagaien zerrendak eta deialdiak prestatzea eta abar.

- Lan kontratazioko prozesuetan laguntzea, beharrezko dokumentazioa eskatuz, sinadura bilketa eginez, erregistroa, titularrei bidaliz, uzteko gutuna eginez eta abar.
- Enplegu eskaerei eman beharreko erantzuna prestatzeaz eta bidaltzeaz arduratzea.

#### **Beste funtzio batzuk:**

- Enplegatuei arreta orokorra egiteko lanak burutzea, kontratazio, aseguru, ordainsari, egutegi, lehiaketa, asistentzi egiaztargiri, baimen eta abarri buruz, zalantzak argitzen saiatuz eta Teknikariari bideratuz kontsulta espezializatuak baldin badira.
- Publikoari arreta egitea herritarrek Arloan tramititzen diren hainbat gairi buruz egindako kontsultetan: oposizioak, Enplegu sustapena, jai nagusietako espedienteak (postu ibiltarietarako eskaerak, azokalariak eta abar), baimen desberdinetarako eskaerak, Gobernazio Batzordean aztertutako gaiak eta abar.
- Zerbitzuan laguntzeko zeregin administratiboak egitea: agenda, korrespondentzia, dokumentuak mekanografiatzea, egiaztargiriak, dokumentazio artxiboa, prozesatze informatikoa eta dokumentazioa prestatzea, hainbat erakundetara dokumentazioa bidaltzea eta jasotzea...
- Jabetza publikoko ondasunen gaineko kalteen espedienteen tramite administratiboak egitea, kaltearen erreklamazioa formulatuz eta epeen jarraipena eginez, finikitoa egiteko helburuarekin.
- Postontzia kudeatzeaz arduratzea (eskaera hartu, dokumentazioa kontrolatu, zalantzak argitu eta abar).
- Arloko gastuen idazpenak egitea.
- Bulegoko materiala birjartzeaz arduratzea.
- Beste administrazio postu batzuekin dituen erantzukizun komunak:
- Antolakuntza eta Giza Baliabidetako espedienteak kudeatzen eta tramititzen laguntzea, horiek osatzeko behar diren agiri, ebazpen, dekretu eta gainerako diligenzia guztiak emanez eta gaiak tramitatzeko eskumen administratibokoak direnean.
- Arloa hobetzeko bultzatzea eta laguntzea, hobekuntza horretan lagunduko duten ekintzak eta aldaketak proposatuz.
- Lana antolatzea ezarritako helburuak beteko direla bermatze aldera.
- Arloaren kudeaketa artxiboa eguneratuta mantentzea, aurretiaz zehaztutako antolamenduaren arabera.
- Antolakuntza eta Giza Baliabidetara atxikitako gainerako langileekin elkarlanean aritzea lana pilatzen denean, norbait ez dagoenean edo gaixo dagoenean.
- Lankideak aholkatzea eta babestea, bere ezagutzagatik edo esperientziagatik nagusitasun profesional handiagoa duen zereginetan.

#### **POSTUAREN MISIOA: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA**

Herritarrentzako arreta eta informazio orokorreko lanak egitea Udalari buruz eskatutako edozein gaitan, Arreta Bulegorako definitu diren edukien barruan.

Telefonoz arreta egiteaz arduratzea, zentralita lanak eginez, zalantzak argituz, deiak hartzaileei bideratuz. Idazkaritzako Arloan laguntza administratiboa ematea.

**IDENTIFIKAZIOA**

**BALDINTZAK**

L.H.	P.M.	DED.	HOR.	ADM.	TALDEA	ESK.	AZPIESK.	MOTA	TITUL.	H.E.	BESTE BATZUK	OHARRAK
F	ES	%100	LO	Bea.Ud.	C2	AO	A		*	2		

\*

DBHn graduatua, eskola-graduata, LH1 edo baliokidea

#### PARTE HARTZEN DUEN PROZESUAK / AZPIPROZESUAK

- Beasaingo Udaleko izapide katalogoan dauden informazioa eta izapidetza.

#### PARTE HARTZEN DUEN BATZORDEAK / KOORDINAZIO MEKANISMOAK

#### OINARRIZKO ERANTZUKIZUNAK

##### LANPOSTUAREN ERANTZUKIZUNAK:

##### Publikoarentzako arreta:

- Herritarrek informatzeko egindako kontsulta eta eskaerei erantzutea, planteatzen dizkioten zalantzak argituz eta zalantzak argituz, bideratuz edo/eta, dagokionean, horiek filtratuz.
- Telefono deiei erantzutea eta zentralita lanak egitea, deiak hartzaileei bideratuz.
- Aurkeztutako eskaera guztiak hartzea, horiek betetzeko herritarrak orientatzea eta laguntzea eta entregatutako dokumentazioa aztertzea.
- Espedienteen tramitazio administratiboaren egoeraz herritarrak informatzea.
- Publikoari arreta egitea posta elektronikoko eta fax bidez hartutako gaien inguruan, eta arreta bereziagoa behar dutenak udal langileen artean banatzea.
- Egokitzen zaizkion espedienteak tramitatzen laguntzea, bai beste udal arlo batzuei buruz, bai beste Institutio batzuei buruz:
- Obra jakitunak tramitatzea.
- Beste erakunde batzuen ardura diren espedienteak tramitatzea: Izatezko Bikoteen Erregistroa, laguntza desberdinetarako eskaerak, beste Administrazio batzuei bidaltzea (etxebizitza erosteko edo zaharberritzeko, bigarren seme/alabagatik eta hurrengoengatik, adopzioak, familia ugariak eta abar).

##### Sarrera eta Irteera Erregistroa:

- Hartutako eta emandako eskaera, korrespondentzia, dokumentu eta abarren Sarrera eta Irteera Erregistroa egitea, erregistroa egiteko ezarritako arauen arabera, eta dagokien langileei bidaltzea, definitutako epeen barruan.
- Sarrera eta Irteera Erregistroaz arduratzea, eta horren zerrendaz eta urteko argitalpenaz ere.

##### Estatistika:

- Herritarren Erroldako, Estatistikako eta Hauteskunde Zentsuko gestioak egitea: altak, bajak, aldaketak, zuzenketak, buletin demografikoak INErekin, erakusketa publikoa, jakinarazpena dagokien organoei eta abar.
- Erroldako aldaketei dagokienez, horiek hartu, aztertu eta zerga eranskinetako Arlo ekonomikora bidaltzeaz arduratzea.
- Idazkaritzarekin lankidetzan aritzea behar den guztian hauteskunde prozesuak zuzen gara daitezen, eta eskatzen zaizkion gaien tramitazio administratiboaz arduratzea (alegazioak, papeletak egitea eta abar).

##### Beste funtzio batzuk:

- Egiaztagiria egitea –errolda, auzotasun, elkarbizitza, ondasunak, balio katastrala, likido zerga-gaia eta abar–, egin beharreko kontsultak eta egiaztapenak eginez.

- Udaleko Iragarki Taula eguneratzea eta jarraipena eta kontrola egitea, informazioa eguneratuta eta zuzen jarrita dagoela zainduz –iragarkiak, ediktuak, jakinarazpenak, epaimahaietako zerrendak...–, eta jarduera hauek egitea: dokumentua hartu, dokumentuaren diligentzia, argitalpena, aldiaren kontrola, azken diligentzia, bidalketa, artxibo administratiboa eta abar.
- Ofizioak egitea eta publikoari erakusteko diligenziak betetzea.
- Herritarren Arreta Bulegoko Koordinatzailearekin lankidetzan aritzea Artxiboko berezko zereginetan: espedienteak bilatu eta mailegatu, espedientea Artxibora itzuli eta abar.
- Idazkaritzari laguntza administratiboa ematea: korrespondentzia, agenda, zitak eta abar.
- Udal erabilerako aretoak erabiltzeko kudeaketa eta kontrola egitea: eskaerak hartu, erabil daitezkeen egiaztatu, baimena eman, artxibo administratiboa.

**BESTE ADMINISTRAZIO POSTU BATZUEKIN DITUEN ERANTZUKIZUN KOMUNAK:**

- Idazkaritzako espedienteak kudeatzen eta tramitatzen laguntzea, horiek osatzeko behar diren agiri, ebazpen, dekretu eta gainerako diligentzia guztiak emanaz eta gaiak tramitatuz eskumen administratibokoak direnean.
- Arloa hobetzeko bultzatzea eta laguntzea, hobekuntza horretan lagunduko duten ekintzak eta aldaketak proposatuz.
- Lana antolatzea ezarritako helburuak beteko direla bermatze aldera.
- Arloaren kudeaketa artxiboa eguneratuta mantentzea, aurretiaz zehaztutako antolamenduaren arabera.
- Idazkaritzari atxikitako gainerako langileekin elkarlanean aritzea lana pilatzen denean, norbait ez dagoenean edo gaixo dagoenean (Alkatearen idazkaria...).
- Lankideak aholkatzea eta babestea, bere ezagutzagatik edo esperientziagatik nagusitasun profesional handiagoa duen zereginetan.
- Arloan existitzen diren instalazioak eta bitartekoak egoki erabiltzen, zaintzen eta mantentzen direla kontrolatzea.
- Lehenago deskribatutako eginkizunez gainera, bere gaitasun eta ahalmen profesionalen arabera, ezarritako helburuak betetzeko egokitzen zaizkion bestelako eginkizunak egitea.

**POSTUAREN MISIOA: MERKATARITZA ETA TURISMO TEKNIKARIA**

Merkataritza eta Turismo ekintzetaz arduratzea, horri atxikitako baliabideak – Ekipamenduak, azpikontratutako enpresak eta abar – Modu eraginkorrean eta ezarritako politikekin bat etorri kudeatuz eta gainbegiratzuz.

Turismo eta merkataritzako jardun-arloetan programak eta jarduerak planifikatzeaz, dinamizatzeaz, garatzeaz eta baloratzeaz arduratzea.

Udalerriko ekonomia sustatzeko programen diseinuaz eta garapenez arduratzea Turismo eta Merkataritza jardun-arloetan.

IDENTIFIKAZIOA					BALDINTZAK							
L.H.	P.M.	DED.	HOR.	ADM.	TALDEA	ESK.	AZPIESK.	MOTA	TITUL.	H.E.	BESTE BATZUK	OHARRAK
F		%100	LO	Bea.Ud.	A2	AE	T		*	4		

\*Diplomatura, ingeniari teknikoa, arkitektura teknikoa edo baliokidea.

**PARTE HARTZEN DUEN PROZESUAK / AZPIPROZESUAK**

- Izapideen katalogoko Merkaritza eta Turismoko izapideak.
- Dirulaguntzak.
- Hitzarmenak.
- Esleipen prozesuak eta esleitutako zerbitzuen jarraipena.
- Ekitaldien antolakuntza eta laguntza.

#### PARTE HARTZEN DUEN BATZORDEAK / KOORDINAZIO MEKANISMOAK

- Herritarren Batzordea
- Herritarren Lan Taldea
- Gairekin lotutako sortutako Batzordeak

#### OINARRIZKO ERANTZUKIZUNAK

##### LANPOSTUAREN ERANTZUKIZUNAK:

##### Azpisaileko kudeaketan

- Merkataritza eta Turismo gaien aurrekontua prestatzea, eta aurrekontu hori betetzen dela egiaztatzea eta balioestea.
- Udaleko sailek egiten dituzten ekintzak ikuspegi merkataritza eta turistikotik baloratzea.
- Merkataritza eta Turismo-ekintzak zuzentzea, antolatzea, gainbegiratzea eta baloratzea.
- Udalerrria merkataritza eta turismoaren arloan hobetzeko ekintzetan aurrez aurre lankidetzan aritzea, hala eskatzen bazaie udalaz gaindiko erakundeekin (GOITUR; EUSKO JAURLARITZA; DIPUTACIÓN, etab.).
- Diru-laguntzak eta laguntzak biltzea eta eskatzea.
- Kudeaketa Planaren proposamena eta bere eskumeneko arloaren urteko aurrekontua egitea, plana kudeatzea eta hura betetzeko beharrezko neurriak proposatzea (desbideratzeen kontrola, kreditua aldatzeko proposamenak, etab.).
- Esparruko zereginak antolatzea, lehenestea eta lantzea, Kudeaketa Planean jasotako alderdiak nahiz planean sartu ez diren eta sailarekin zerikusia duten beste zeregin batzuk betetz.
- Arduradun politikoarekin lankidetzan aritzea arloarekin zerikusia duten alderdietan, gogobetetasun-, ordena- eta diziplina-giroa indartuz.
- Bere erantzukizun-eremuko Baldintza, Ordenantza eta Araudien Pleguak egitea, bai eta egoki irizitako aldaketak aztertu eta proposatzea ere.
- Beren eginkizunak betetzeko behar dituzten beste erakunde, entitate, profesional eta abarrekin beharrezko harremanak eta harremanak ezarri eta garatzea.
- Arloaren funtzionamenduaren kontrolaz eta jarraipenaz arduratzea, zehatz-mehatz eta dokumentatuta – Jardueraren estatistika, programen ebaluazioa, espedienteen jarraipena eta abar –, eta dagozkion memoriak egiteaz eta aurkezteaz arduratzea.
- Esparruko dokumentu-sistema fisikoaz zein informatioaz arduratzea, eta sistema hori antolatzeko eta mantentzeko irizpideak, arauak eta jarraibideak zehaztea.
- Arloari dagozkion udal-adierazleak prestatzeaz arduratzea.
- Arloan antzemandako beharretan oinarrituta, ekipamendu eta bitarteko berriak erostea proposatzea, eta horiek eskuratzeko behar den informazioa ematea.

##### Aholkularitza Teknikoa

- Udalerriko merkataritza eta turismo esparruaren azpiegitura eta ekipamendua planifikatzea eta kudeatzea.
- Arloko jarduera-eremuari dagozkion programak, laguntzak eta baliabideak eguneratuta izatea, eta horiek hobetzeko eta eguneratzeko egoki irizitako ekintza eta neurri guztiak proposatzea.
- Bere eskumeneko gaiekin zerikusia duten jardueri buruzko era guztietako informazioa biltzea, ateratzea eta artxibatzea, jardueren antolaketan zabalteko edo erabiltzeko.
- Arloko esparruetan garatutako jarduerak eta programak (erakusketak, tailerrak, azokak, etab.) zabalteko eta horien berri ematea.
- Bere eremuarekin lotutako mugimenduak eta ekimenak dinamizatzea eta babestea, udalerriko merkataritza- eta turismo-eskaintza garatzeko lankidetzak-hitzarmenak ezarri.
- Arloan garatu beharreko programak eta ekimenak diseinatzea eta planifikatzea, bere eskumeneko eremu guztietan (Turismoa eta Merkataritza), eta haien antolaketa, abian jartzea eta kudeaketa zuzentzea, ezarritako erabaki eta irizpideen arabera.
- Udalerriko merkataritzaren eta turismoaren zabalkundea sustatzea.

- Programatutako jardueren gauzatzearen jarraipena eta ebaluazioa egitea, behar diren ekintza zuzentzaileak sartuta.
- Bere jardueraren ondoriozko txostenak eta idazkiak egitea.
- Merkatariek aurkeztutako eskaerak eta eskariak kudeatzea.
- Gaiak prestatzea eta Turismo eta Merkataritza Batzordera idazkari gisa joatea, eta beste batzorde batzuetan parte hartzea, baldin eta batzorde horietan parte hartzea eskatzen bazaio (kultura, Igartza, jaiak, parte hartzeko foroak, etab.), bere jardun-eremuarekin zerikusia duten gaietan, gaiak aztertzeko, horiei buruzko txostenak egiteko edo kontsultatzeko.
- Merkataritza-jarduera sustatzea eta saltokien edo erakundeen ekimenak babestea.
- Hainbat erakunderi (Aldundia; Eusko Jauriaritza; Elkarteak) buruzko informazioa biltzea eta gure saltoki eta erakundeei helaraztea.
- Inguruko elkarteekin eta eskualdeko teknikariekin elkarrengaitza eta ekimen berriak ezartzeko beharrezkoak diren ekintzak egitea.
- Merkataritzaren, enpresen eta zerbitzuen arloan euskararen normalizazio- eta erabilera-planak diseinatzen eta kudeatzen laguntzea, Kultura eta Euskara Sailarekin batera.
- Kultura eta Euskara Sailarekin lankidetzan aritzea, euskararen garapenean eragina duten enpresa edo zerbitzu pribatu zein publikoen mugimenduak eta ekimenak dinamizatzeko eta bultzatzeko.
- Udalerriko merkatarien eta enpresen euskarazko itzulpen-eskaerak bideratzea.
- Merkataritzan eta enpresetan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea.

#### **Beste funtzio batzuk:**

- Bere jardun-eremuan egiten diren argitalpenak kudeatzea; argitalpenen harrera, itzulpena, maketazioa eta abar arduratuz eta koordinatuz.
- Deskribatutakoez gain, bere gaitasunekin eta lanbide-gaitasunekin bat etorritik, ezarritako helburuak lortzeko agintzen zaizkion beste zeregin batzuk egitea.
- Herritarrei beren eginkizunaren berezko gaietan arreta eta informazioa ematea, eskura dituzten komunikabide guztien bidez.
- Eremuan dauden instalazioak eta baliabideak behar bezala erabiltzen, kontserbatzen eta mantentzen direla kontrolatzea eta zaintzea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

e.- PLAZA BERRIAK ERATZEA. 2022PEBO0049

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

Lehenengoa.- Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea indarrean sartzearen ondorioz, aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarri bat baimentzen da. Tasa horretan, administrazio publikoetan dauden egiturazko lanpostuak sartuko dira, lanpostu-zerrenden, plantillen edo giza baliabideak antolatzeke beste modu baten barruan egon edo ez.

Bigarrena.- Beasaingo Udalak egoera aztertu eta Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana idatzi du (ikusita plana), lanpostuen zerrendan egon arren plantilla organikoan ez dauden lanpostu batzuk egonkortzeko.

Hirugarrena.- Planaren analisia eginda, postu estruktural batzuek ez dutela bere islada plantilan zehazten da. Beraz, plazak sortzea eskatzen du eta ondorioz, monografiak onartzea eta lanpostuak baloratzea.

Jarraian, sortu eta baloratu beharreko plazak aurkezten dira:

Administrari plaza 1.

Grupo: C1

Escala: Admnsitración General

Subescala: Adminitrativa

Complemento de destino: 17

Complemento específico: 16.582,31 €

Hizkuntza Eskakizuna: 3

Laguntzaile plaza 1 administraria.

Taldea: C2

Eskala: Administrazio Orokorra

Azpieskala: Adminitratiboa

Lanpostu-mailako osagarria: 17

Berariazko osagarria: 15.528,26 €

Hizkuntza Eskakizuna: 2

Merkataritzako teknikari plaza 1.

Taldea: A2

Eskala: Administrazio Orokorra

Azpieskala: Zerbitzu berezia teknikoa

Lanpostu-mailako osagarria: 19

Berariazko osagarria: 19.001,45 €

Hizkuntza Eskakizuna: 4

Proposamenak sindikatuetao ordezkariekin negoziatu ziren eta aho batez onartu ziren (2022ko maiatzaren 11ko akta).

Laugarrena.- Arrazionalizazio-programaren ondorio ekonomikoak.

20/2021 Legearen 2.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, prozesu horiek ebazteak ez du ekarriko, inola ere, ez gasturik ez efektiborik gehitzea, eta prozesu horietan, nahitaez,

*aldi baterako lotura duten langileek betetzen dituzten egiturazko plazak eskaini beharko dira.*

*Hori dela eta, ezin izango dira eskaini karrerako funtzionario bati lanpostua gordeta duten lanpostuak, ez lanpostu horretan erreserba dagoen kasuetan, ez eta antzeko ezaugarriak dituen lanpostua gordeta dagoen administrazio-egoeretan karrerako funtzionarioak ordezkatzeko izendatzen diren bitarteko langileen kasuan ere.*

*Era berean, eta ondorioz, arrazionalizatzeko programaren 5.1 atalean jasotako lanpostu sortu berriei esleitu beharreko ordainsariak gaur egun eginkizun horiek betetzen dituzten aldi baterako langileek jasoko dituzte.*

*Bosgarrena.- Proposamen horiek guztiak ordezkaritza sindikalekin negoziatu dira 2021eko azaroaren 12an, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34 eta 37 c) artikulua.*

*Seigarrena.- Udalbatzari dagokio plazak sortzeko erabakia hartzea, Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua.*

*Alkateari dagokio enplegu publikoaren eskaintza onartzea, Udalbatzak onartutako aurrekontuaren eta plantillaren arabera, Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua.*

*Horiek horrela, Udalbatzari proposatzen zaio, Antolakuntzako Batzorde Informatzailearen aldeko irizpena eman ondoren, ondorengo*

**AKORDIOA:**

*Ondorengo plazak onartu plantilan:*

*Administrari plaza 1.*

*Grupo: C1*

*Escala: Admnsitración General*

*Subescala: Adminitrativa*

*Complemento de destino: 17*

*Complemento específico: 16.582,31 €*

*Hizkuntza Eskakizuna: 3*



Laguntzaile plaza 1 administraria.

Taldea: C2

Eskala: Administrazio Orokorra

Azpieskala: Adminitratiboa

Lanpostu-mailako osagarria: 17

Berariazko osagarria: 15.528,26 €

Hizkuntza Eskakizuna: 2

Merkataritzako teknikari plaza 1

Taldea: A2

Eskala: Administrazio Orokorra

Azpieskala: Zerbitzu berezia teknikoa

Lanpostu-mailako osagarria: 19

Berariazko osagarria: 19.001,45 €

Hizkuntza Eskakizuna: 4

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

a.- “COWORKING” GUNEA ERABILTZEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2022. URTEA. 2022MEPO0034

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK:

1. “Coworking” gunean merkatarari bakoitzak bere proiektuak modua askean garatzen du baina elkarlana ere bultzatzen du eta elkarren arteko sareak sartzeko aukera ere ematen du. Beraz, egokia eta aberatsa ikusten da lan egiteko modu hau.
2. 2018 eta 2019. urtean Beasainen coworking gunea bazegoenez, horiek erabiltzeko dirulaguntzen oinarriak argitaratu ziren, baina gero gune hau itxi egin zen eta horregatik orain arte ez dira dirulaguntza horien oinarriak argitaratu.
3. 2022an, berriz ere, coworking gunea irekitzeko asmoa dagoela jakinarazi dugutenez dirulaguntza hauen oinarriak aurten argitaratzea egoki jotzen dugu.

LEGERIA APLIKARRIA

-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra subentzioak emateari buruzkoa.

#### PROPOSAMENA:

*Herritarrek batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egitea.*

Lehenik: 2022ko "Coworking" gunea erabiltzeko dirulaguntzen inguruko oinarriak onartzea eta deialdi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.

Bigarrenik: Udalak, "Coworking" lokalaren 12 hilabeteetako alokairuaren %50 ordainduko die (BEZik gabe), gehienez ere 1200€, jarduera ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egon eta lan egiteko bere etxetik kanpoko leku bat behar duen pertsona fisiko nahiz juridikoei edo enpresa-proiekturen bat garatzen ari diren eta oraindik jarduerarik ekin ez dioten pertsoneri."

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "En la comisión informativa mostramos nuestras dudas sobre la cantidad máxima de 1.200 € y ello vinculado a la errata que hay en la propuesta de la comisión que dice: *aprobar bases y convocatoria para el año 2018*. El documento que se utiliza es el de las bases de 2018. No se ha hecho un estudio de mercado para saber si es necesario incrementar esa cantidad. Nosotros proponemos subir la ayuda máxima a 2.000 € por si no se llega a cubrir el 50% de la renta anual. Es una ayuda que fomenta la actividad económica en Beasain y por ello creemos que es interesante, pero habría que haber revisado la cantidad, ya que la vida ha cambiado. A diario vemos que los gastos son superiores."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Guk Evak esan duenarekin bat egiten dugu. Ados gaude diru-laguntzarekin, baina batzordean komentatu genuen bezala oinarriak, 2018. urteko berdinak dira, ez da inolako azterketarik egin eta ez dira egungo egoerari egokitzen. Batzordean galdetu genuen ea zein zen coworking-eko alokairu gastua eta ez zitzaigun argitu. Zentzu honetan, laguntza 1.200 €takoa bada kalkulua erraza da. Demagun hiru enpresa daudela eta 1.000 € balio duela alokairuak, bakoitzak 333 € ordaindu behar duela alokairu kontzeptuan. Diru laguntza ehun eta hirurogei ingurukoa izango litzateke. Kontu horitan laguntza sei hilabeteetan amaituta dago eta oinarrietan 12 hilabeteetako diru laguntza izango dela esaten da. Asmoa bai, baina ez da aztertu merkatua eta ezta ere egon daitezken beharrak. Atentziona deitu digu baita ere, irabazi asmorik gabeko elkarten kabida ez dutela oinarri hauetan. Proposatu genuen hori aztertzea eta esan zitzaigun aztertuko zela baina dokumentazioa bere horretan jarraitzen du. Beste galderetako bat izan zen ez bakarrik laguntzen den Labealde parean dagoen coworking gunea. Adibidez batzuk elkartu eta pisu batean jarri ezkerreko galdetu zen baita ere ea coworking gunetzat hartuko zen. Ez zen oso argitu geratu, baina oinarrietan ez da inolako aipamenik egiten horri buruz. Beraz, laguntza hauetan definizio falta sumatzen dugu."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Esan dituzuen puntuak aipatuz, inork ez ditu lotzen coworking laguntza horiek Nafarroa Etorbidean dauden lokaletara bideratuta daudenik. "

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Batzordean horrela esan zen."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Hura izan zen adibide bat. Baina herrian edozeinek coworking espazio bat jartzen badu eta toki horretan ekintzaile berrientzat espazioak egokitzen badu, horiek ere diru laguntza hauek jasoko aukera izango lukete. Eskatzen dena da irekitzen den espazio hori coworking espazioa izatea. Horrek esan nahi duenarekin, hau da, sarean lan egiteko aukera, bakoitzak bere proiektua aurrera

eramateko aukera eta talentu batek beste talentuaz ikasi behar duena ikasteko aukera izatea. Ez dago lotuta Nafarroa Etorbidean dagoenarekin. Hemen kale Nagusian coworking espazio bat irekitzen bada, bertan daudenen jabeari ordaintzen dioten alokairuaren zenbatekoaren %50 hori jasoko lukete. Azterketak egin ditugu. Beste herrietako coworking-etan zein alokairu kostu dauden ikusi dugu eta bertan dauden kostuak 200 € ingurukoak izaten dira. Ez dugu ikusten maximoa igo behar denik, baina coworking espazio hori irekiko balitz Beasainen, edozein tokitan, laguntza izango luke.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Niri ez argitu, azaldu batzorde buruari. Batzordean une oro Nafarroa Etorbidean dagoen coworking-etaz hitz egin zen eta adierazi zen jabearekin hitz egin zela.”

Elena Ruiz Zabala andreak (EAJ-PNV) esan du, teknikariak horrela esan zuela.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Behar bada esan nahi zena izan zen coworking espazio hura egon zenean, bertako kudeatzailearekin harremanetan egon ginela, jakiteko alokairu kostuak gutxi gorabehera zenbat ziren. Hori horrela izan zen.

Irabazi asmorik gabeko elkarteei buruz esan, coworking espazioa ekintzaileak sustatzeko espazio dela eta irabazi asmorik gabeko elkarteei ekintzak aurrera eramateko, hitzarmenen bitartez lagatzen zaizkie espazioak, hala nola, Igartza Jauregia, Usurbe antzokia, etab.”

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Leire has dicho que se han contrastado los precios de otras poblaciones, pero en la comisión informativa se nos dijo que no se habían mirado los precios que hay hoy en día en Beasain.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Zorionez irekiko balitz coworking espazio bat eta ikusiko balitz diruz laguntzeko zenbatekoa gehitu beharko litzatekeela, oinarriak aldatuko genituzke, zorionekoak izango ginatekeelako eta hori nahi dugulako. Hori ez da arazoa izango.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): Hori aipatu duzunez, Udalak ere ireki ahalko luke horrelako espazio bat.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ba dauka bat.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Bai baina oso mugatua. Benetan sustatu nahi badugu...!. Momentu oro batzordean espazio hura aipatu zen eta ez zen beste aukerarik ematen. Elkarteei buruz, nire ustetan herri onura ere egin dezakete. Beste ekintzaile mota bat da eta ez dugu bakarrik bultzatu behar enpresa pribatua. Esan duzu elkarteei espazioak uzten zaizkiela, baina badakigu lokalen gabezia dugula. Niri pertsonalki pasatu zait elkarte ezberdinetan egotea eta ez izatea espaziorik eta udalari eskatuta ez dagoenaren erantzuna jasotzea. Ez dugu ulertzen fisikoki espazioa egon ezkerro, zergatik ezin dezaketen kabidarik izan laguntza hauetan.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Coworking izaera duen lokalaren baldintzak betetzen ez dituztelako. Lokala esaten duzu baina hemen batzar aretoa dugu ikusgai. Esan nahi dut, irekita dago erabiltzeko. Adibidez, administrazio erkidegoek hemen bileran egiten dituzte. Erreserbatzen da eta erabiltzen da.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Ezin etorriko da elkarte batek honantz bilerak egitea, ez?. Lanerako gune fisikoaz ari gara.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ezberdin ulertzen dugu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 7 (Beasaingo EH bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo oinarriak onartu dira:

**“COWORKING” GUNEA ERABILTZEKO DIRULAGUNTZEN INGURUKO OINARRIAK  
ETA DEIALDIA. 2022. URTEA**

*Udalen eskumen propioen artean ondorengo dago: Tokiko ekonomia eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu lanak edo politikak. Horretarako, Udalak helburu gisa du udalerriko enpresa txiki sortu berriek edo jarduera bat gauzatzeko proiekturen bat garatzen ari direnek “coworking” modura lan egitea sustatzea.*

### 1. XEDEA

*Coworking-gunea: Enpresa txikiek, lan mundura hurbiltzeko edo euren kabuz lan egiten duten langileek beren lan jarduera gauzatzeko partekatzen duten lekua da.*

*Oinarrien xedea: Arestian aipatutakoei “coworking” espazio pribatuetan laguntzak esleitzeko baldintzak finkatzea da.*

### 2. FINANTZIAZIOA

*2022ko udal aurrekontuan “Dirulag: coworking espazioa erabiltzeko” 0243.471.241.00.01 kontu-sailean 1.000€-ko kerditua aurreikusi da merkatariarentzat helburu honetarako.*

*Gehieneko zenbateko osoaz gain, aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu aldaketa onartu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.*

### 3. ONURADUNAK

*Beasaingo coworking espazioen erabiltzaileek eskatu ahal izango dute dirulaguntza hau. Hauek bi kasutan eskatu ahal izango dute:*

*a) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dauden pertsona fisiko edo juridikoak, beren jarduera garatzeko espazio gaiturik ez dutenak.*

*b) Enpresa-proiekturen bat garatzen ari diren eta oraindik jarduerari ekin ez dioten pertsonak.*

### 4. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

*- Helbide fiskala Beasaingo udalerrian izatea.*

*- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda.*

- *Pertsona juridikoen kasuetan, gehienez hiru langile izatea. (Ez dira irabazi asmorik gabeko elkarteak onartuko).*

- *Beasainen jabetzan lokalik ez edukitzea, jarduera garatzeko.*

-*Udal Ogasunarekin zorrik ez izatea.*

-*Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea. Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuetan kontsulta eginez.*

*Hala ere, onuradunak berriaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.*

- *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki debekurik ez izatea.*

## 5. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

*Dirulaguntza 4.artikuluko baldintzak betetzen dituztenei emango zaizkie.*

*Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.*

*Ordainketa, Alkateak dirulaguntzaren ebazpena ematen duenetik hilabeteko epean egingo da.*

*Administrazio bidean behin-betikoa den ebazpenaren aurka helegite Kontentzioso-Administratiboa jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi gaien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena jasotzen den hurrengo egunetik hasita.*

*Hala nahi izanez gero, bide kontentzioso administratiboari ekin aurretik, birjapen helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.*

## 6. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

*Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak osagarriak izango dira beste erakundeek helburu berdinerako emandako laguntzekin.*

## 7. DIRUZ LAGUNDUKO DEN GASTUA ETA DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

*-Lagunduko den gastua: 12 hilabeteetako lokalaren alokairuaren prezioa (BEZik gabe).*

*-Dirulaguntzaren zenbatekoa:*

*Lokalaren alokairuaren prezioaren %50a. Gehienez ere 1.200€ urtean.*

## 8. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Agiri hauek erantsi beharko zaizkio dirulaguntzak eskuratzeko eskabideari:

-Eskabide-orria sinatuta (l. eranskina).

-Pertsona fisikoek: NA-ren fotokopia.

-Pertsona juridikoek: IFZren fotokopia.

-Ordezkatze-ahalmenaren fotokopia, kasua bada, eta ordezkariaren NA.

-Langile kopuruari buruzko ordezkariaren aitorten arduraduna.

-Soldatapekorik izan ezean, norberaren konturako langileen edo autonomoen erregimen berezian alta eman izanaren egiaztatzea.

-Coworking espazio eta laguntza eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak sinatutako alokairu kontratuaren kopia eta "coworking"-ek eskaintzen dizkion zerbitzuen agiria.

-Hileroko alokairuaren fakturak eta ordain agiriak.

-Jarduera ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen agiria.

## 9. OINARRIAK ARGITARATZEA ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAO n argitaratuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

-Epea: Eskabideak oinarriak GAO n argitaratzen diren hurrengo egunetik eta 2022ko azaroaren 1era arte.

-Moduak:

- Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria eta aurkeztu beharreko agiriak iGunean aurrez aurre aurkeztuta.  
Eskaera orria Beasaingo Udalaren web orritik jaitsi eta inprima daiteke.
- Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuta, Beasaingo Udalaren [www.beasain.eus](http://www.beasain.eus) helbidean.

Udalak ikusiko balu eskaera osatu gabe dagoela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari dokumentazioa osatzeko. Epe horretan dokumentazioa osatzen ez bada, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

## 10. ERREKURTSOAK

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean aurka egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean,

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan."

b.- "IGARTZA MUSIKA BEKA" SARIAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK. 2022-2023 IKASTURTEA. 2022MUBO0005

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena ondorengo oinarriak onartzeari buruzkoa:

## **“OINARRIAK**

### **Lehena. Bekaren xedea**

*Beka honen helburua Euskal Herrian kultura sustatzea eta musika hedatzea da, bereziki goi mailako musika-hezkuntzaren esparruan.*

### **Bigarrena. Beka-motak**

*Bi beka ezarriko dira:*

- *Musikeneko Goi Mailako Musika Ikasketetako ikasleentzat.*
- *Musikeneko Master ikasleentzat.*

### **Hirugarrena. Parte hartzeko baldintzak**

*Deialdia Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, Interpretazio espezialitateetan (klasikoa edo jazz) matrikulatuta dauden eta ikasketak egiten ari den edozein adin edo nazionalitateko parte hartzailei dago irekia.*

*Musikenen Goi Mailako Titulazioaren laugarren urtean eta Interpretazio Masterretan (Orkestra Ikasketen Masterrak, Musika Interpretazio Masterra eta Jazz-Interpretazio Masterra) matrikula egina duten ikasleek izango dute saria jasotzeko aukera, hurrenez hurren.*

*Bekak helburu dituen ikasketak 2022/2023 ikasturtean egin beharko dira.*

*Eskatzaileek curriculum labur bat eta programa libre baten egitaraua eman beharko dituzte, gehienez hamabost minutuko iraupenekoak. Egitarauak barne hartzen dituen bi obra gutxienez, edo obren mugimenduak, estilo ezberdinetakoak izan beharko dira.*

*Hala behar duten obrak laguntzaile batekin jo beharko dira, hautagaiek eraman beharko dute.*

*Bekara aurkezteak oinarriak osotasunean onartzen direla esan nahi du.*

### **Laugarrena. Eskaerak**

*Epea: Eskaerak jasotzeko epemuga 2022ko urriaren 22a izango da.*

*Aurkezteko tokia: Eskaerak [master@musikene.eus](mailto:master@musikene.eus), helbidera bidaliko dira Master ikaslea bada eta [mgenua@musikene.eus](mailto:mgenua@musikene.eus), Goi Mailako ikaslea bada. Horretarako oinarri hauetako I. eranskinean azaltzen den eskaera-orria bete eta eskatzen den dokumentazioa atxiki beharko da.*

### **Bosgarrena. Epaimahaia**

*Osaketa. Berriazko epaimahaia izendatuko da, gutxienez ospeko hiru musikariez osatutakoa. Musikenek izendatuko du Beasaingo Udalaren onarpenarekin eta epaimahaian ere Udalaren ordezkari bat egongo da.*

### Funtzioak:

- *Epaimahaiak hautagaiei elkarrizketa egiteko ahalmena izango du beraien musika-egitasmoa ezagutzeko helburuz.*
- *Epaimahaiak, kontzertu beraz gain, bere balorazio irizpideetan kontutan izango ditu hautagaien meritu akademiko eta artistikoak.*

### Erabakiak:

- *Bekak Beasainen jendaurrean egingo den kontzertu baten ondoren erabakiko dira, 2022ko azaroaren 19an. Izena eman duen ikasleari eguna eta ordua gutxienez hamar eguneko aurrerapenaz jakinaraziko zaio.*
- *Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira.*
- *Epaimahaiak, antolakuntzarekin adostuta, sariak hutsik utz ditzake.*

*Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitatezko botoa izango du.*

### **Seigarrena. Sariak**

*Bi motatako sariak izango dira:*

- *3.000 €ko beka Master ikasleentzat*
- *2.000 €ko beka Goi Mailako ikasleentzat.*

### **Zazpigarrena. Ordainketa**

*Bekaren zenbatekoa bi epetan jasoko da:*

- *Lehenengoa "Igartza Musika Beka" ematearekin batera.*
- *Bigarrena kontzertua egin ondoren.*

*Sariei legeak ezartzen dituen zerga atxikipenak ezarriko zaizkie.*

### **Zortzigarrena. Sarituen betebeharrak**

*Irabazleek ezingo dute hurrengo deialdietara aurkeztu.*

*Sari banaketan derrigorrezkoa da partaideen presentzia, saria jaso ahal izateko ezinbestekoa.*

*Oinarri hauetan azaltzen diren baldintzak betetzea.*

*Emandako saria idatziz onartzea, eman izanaren jakinarazpen ofiziala gutun batean jaso ondoren. Onarpena gutunean adierazten den epea baino lehen gauzaten ez bada Bekari inplizituki uko egiten diola ulertuko da.*



*Bekak helburu dituen ikasketetan Musikenen matrikula egina duela egiaztatzea eta probetxuz egitea aipatutako ikasketak. Honetarako, Musikenek ziurtagiria emango du, non bi baldintzak egiaztatzen diren.*

*Bekadunek Igartzako Jauregian edo Beasaingo beste edozein lekutan doako kontzertu publiko bat emango du Beka honen antolakuntzak ezartzen duen datan.*

*Bekadunen curriculumean derrigor aipatu beharko da honako testua: Beasaingo Udalaren "Igartzako Musika Beka".*

### **Bederatzigarrena. Beka bueltatzea**

*Beasaingo Udalak eta Musikenek beka kentzeko aukera izango dute ezarritako betebeharrak betetzen ez badira.*

### **Hamargarrena. Oinarriak argitaratzea**

*Oinarri hauek onartu eta gero BDNS delakoa bidaliko da, ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezkeen. Halaber, Beasaingo Udalaren webgunean argitaratuko dira eta Musikenera era bidaliko dira beraien web orrian argitaratu ditzaten .*

### **Hamaikagarrena. Datuen babesa.**

*Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.*

### **Hamabigarrena. Aplikatuko den araudia.**

*Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.*

### **Hamahirugarrena. Ebazpena eta helegiteak.**

*Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.*

*Oinarri hauen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi-gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunean hasita zenbatutako hilabeteko epean."*

*Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.*

*Bozketa egin da eta aho batez onartu dira oinarriak.*

**c.- 2022-2023 IKASTURTEA. MUSIKA ESKOLAKO TASAK. HASIERAKO ONESPENA. 2022MUBO0006**

*Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:*

**GAIA:** Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolan 2022-2023 ikasturtean aplikagarri izango diren tasen onespena.

Herritarren Batzordeak 2.022ko maiatzaren 19an egindako bileran, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, Udalbatzaren onespenerako aurkezten du BEASAINGO UDAL LOINATZ MUSIKA ESKOLAK 2022-2023 ikasturtean irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasen akordio PROPOSAMENA:

**AURREKARIAK:**

-Musika Eskolaren finantzazioaren ikasleei dagokien %33era gerturatzearen, %2ko igoera aplikatzea proposatzen da.

**LEHENIK.** 2022-2023 ikasturtean Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolan emango diren irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasak, hobariak eta baldintzak hasiera batean onartzea. Tasa hauek aplikatu ahal izango dira hurrengo ikasturteetan, baldin eta Udalak aldatzeko erabakirik hartzen ez duen bitartean:

**\*TASAK**

2022-2023 IKASTURTEKO TASAK		
IKASGAIAK	PROPOSAMENA	
	IKASTURTEKO KOPURUA	Hilabeteroko kopurua
I. MAILA: Musika Tailerra	225,00 €	22,50 € hilabetean
I. MAILA: Hastapena	290,00 €	29,00 € hilabetean
II. MAILA: Instrumentua + Musika Lengoia	762,50 €	76,25 € hilabetean
II. MAILA: Instrumentua / Akonpainamendua / Kantua	570,00 €	57,00 € hilabetean
II. MAILA: M. Lengoia+Pandero / Kantu taldea	567,50 €	56,75 € hilabetean
II. MAILA: M. Lengoia	290,00 €	29,00 € hilabetean
II. MAILA: Trikitixa	495,00 €	49,50 € hilabetean
II. MAILA: Panderoa	360,00 €	36,00 € hilabetean
III. MAILA: Instrumentua + Gai teorikoa	810,00 €	81,00 € hilabetean
III. MAILA: Instrumentua/Akonpainamendua/Kantua/Errefortzu Gaia	602,50 €	60,25 € hilabetean
III. MAILA: Trikitixa	520,00 €	52,00 € hilabetean
III. MAILA: Gai Teorikoak / Informatika (x 3 hilabete)	290,00 €	29,00 € hilabetean *
IV. MAILA: Pop-Rock taldeak	65,00 €	6,50 € hilabetean
IV. MAILA: Abesbatza	65,00 €	6,50 € hilabetean
3. adineko Musika Tailerra	65,00 €	6,50 € hilabetean
Kantua taldean	265,00 €	26,50 € hilabetean
Piano Akonpainamendua (60')	877,50 €	87,75 € hilabetean
Piano Akonpainamendua + Gai teorikoa	1055,00 €	105,50 € hilabetean
MATERIALA	16,00 €	Abenduan ordainketa bakarra
* bakarka 40'		
<b>IZENEMATEA 2023-2024 ikasturterako</b>	<b>48,25 €</b>	

**\*HOBARIAK**

-Familia partaide kopuruarengatik dirulaguntza:

1.partaideak: kuota osoak

2.partaideak: kuota osoak

Familia bereko 3 senide daudenean, kuota txikiaren kopuruko dirulaguntza emango da.

**\*BALDINTZAK**

*-Matrikula formalizatzen den unean urteko kuotaren ordainketa-betebeharra sortzen da, beraz, kurtsioan zehar gerta litezkeen bajak, haren amaierarako falta den hilabete kopurua edozein izanik ere, ez dute kuotaren murrizketarako eskubiderik sortzen.*

*-Ordainketarako epea: Urteko kuotaren kobraketa 10 hilabetetan zatituko da irailetik ekainera bitartean. Informatikaren kasuan hiruhileko ikastaroa denez, 3 hileko tasak ordainduko dira.*

**BIGARREN.** *-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko web orrian eta zabalkunde handieneko Gipuzkoako egunkariaren bitartez iragarkia argitaratuta agertzen den azken egunetik aurrera kontatuta, espedientea jendaurrean 30 laneguneguz egongo da ikusgai, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.*

**HIRUGARREN.** *-Inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, erabakia behin betirako onartutzat hartuko da, eranskinaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta argitarapenaren hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.*

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Tamalgarria da udal gobernua ez ikustea baldintza eskasak dituzten familiak laguntza jaso beharko luketela tasak hauek ordaintzeko. Iruditzen zaigu ordaindu dezakeenak ordaindu dezakeela baina beasaindar guztion aldetik ordaintzen den zerbaite beasaindarren eskura egon beharko luke. Aukerak badaude, beste kulturako gaiekin egin genuen bezala, adibide batzuk ekarri nahi izan ditugu. Adibidez Tolosan, familia ugariak %50eko laguntza dute eta horrez gain gizarte laguntzetarako baldintzak bermatzen dituztenak %80ko hobaria dute. Errenterian gaitasun ekonomikoaren arabera, hau da, errenta eta ondarea kontuan izan da, prezio ezberdinak ordaintzen dituzte. Beno eredu hau ez zaizue gustatuko, kiroldegiko prezioak proposatu genituenean ere, esaten zenuten kudeatu ezinezkoa zela, baina badirudi beste herri batzuetan, borondatea egonda, hori egiten dela. Guretzat formula interesantea da bermatu ahal izateko nahi duenak musika eskolara joatea. Oartzunen lehenengo hastapena egingo dutenei %100 lagunduko zaie eta egoera berezia duten familiek %20ko hobaria izango dute. Beno batzordean oso argi esan zitzaigun zuek zaretela erabakitzen duzuenak, baina guk behi eta berriz esango dugu, zeren eta gure ustez politika sozialean borondate falta dago. Beasaingo udalaren egoera ekonomikoa ona da eta aukerak daude mahai gainean jarri eta aztertzeko. Aipatu genuen gizarte ongizateko diru-laguntzatan horrelakoak kabida izango lukeen baina argi esan zitzaigun, horietan ezinbestekoak direnak sartzen direla eta badakigu inoiz ez dela ikusiko ezinbestekoa haurrak musika ikasketak jasotzea. Pena handiz hau onartuko duzue eta aurrera jarraituko dugu tasa hauekin.”

Malu Fernandez Valles andreak (EAJ-PNV): “Yo creo que es importante señalar la manera en que se financia la música escuela, esto es, una parte asume el Gobierno Vasco, la otra el Ayuntamiento y la tercera el ciudadano. Ello quiere decir que ya viene subvencionado. El Ayuntamiento ya hace un esfuerzo importante para que la música escuela esté subvencionada para todos. De las tres partes en que está dividida la financiación, el ciudadano sólo asume una, aunque entiendo que para algunos es mucho dinero, pero hoy por hoy este gobierno entiende que la música escuela no es una necesidad primaria e indispensable para los ciudadanos. Sólo en el caso de que así lo determinen informes de Educación, Sanidad, por un psicólogo, por la socialización del alumno, por sus capacidades, el coste será asumido por el departamento de bienestar social. De no ser entendido como una necesidad básica creemos que todos nosotros hacemos una aportación muy grande. A Bildu se le olvida que el Ayuntamiento ya subvenciona una parte y todos nosotros dos terceras, vía impuestos. Para muchas familias puede ser mucho

dinero. Si se considera necesario, ¿se va a subvencionar?. Si. ¿A todo el mundo, no?. No.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Bai, baina balorazio hori inoiz ez da egingo. Batzordean galdetu genuen eta Karmelek esan zuen inoiz ez dela etorriko esanez psikologo batek esan duela beharrezkoa denik. Kiroldegian berdin, fisioterapeuta batek esan dezake, baina ezezkoa esan zen.”

Malu Fernandez Valles andreak (EAJ-PNV): “Pero eso no quiere decir que en adelante no se pueda hacer.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Baina ez du zertan behar berezi bat izan beharrik.”

Malu Fernandez Valles andreak (EAJ-PNV): “Pero ese es el punto en el que no vamos a llegar a un acuerdo.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Ulertu dezaket, hemen Eusko Jaurlaritzak eta Udalak laguntzen duela, baina zergatik beste herrietan tasak merkegoak dira eta gainera ordaintzen laguntzen dituzte?”

Malu Fernandez Valles andreak (EAJ-PNV): “A lo mejor no tienen tantos servicios como tenemos nosotros o han decidido volcar su asistencia en ese área. Oiartzun y Beasain no tienen nada que ver como municipio. Lo mismo Renteria y Beasain, Renteria tiene casi 50.000 habitantes y nosotros tenemos 13.000, pero tienen un cine que cada entrada cuesta 9 y el nuestro 5 €.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Eta Tolosak du 377 € prezioa urte osorako musika ikasteko eta Beasaingoak doblatu egiten du.”

Malu Fernandez Valles andreak (EAJ-PNV): “Estamos haciendo trampas al solitario. ¿Estamos estudiando todas las tarifas de todos los sistemas?. A lo mejor si estudiamos todo, la diferencia está en otro punto.

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Gu prest gaude aztertzeko. Gure zalantza, hain zuzen ere, hori da, ez dela azterketarik egiten. Baina beno, ez gara ados jarriko.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH bildu,)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin proposamena onartu da.

d.- 2022-2023 IKASTURTEA. EUSKALTEGIKO TASAK. HASIERAKO ONESPENA.  
2022DEUD0001

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

GAIA: *Beasaingo Udal Euskaltegian 2022-2023 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onespena.*

*Herritarren Batzordeak 2022ko maiatzaren 19ean egindako bileran, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, Udalbatzaren onespenerako aurkezten du UDAL EUSKALTEGIAK 2022-2023 - ikasturtean Beasaingo Udal Euskaltegiko irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasei buruz hartutako akordio-proposamena. Hemendik aurrera tasa hauek aplikatuko dira tasa aldaketa eskatu ezean.*

*Ondorengo eranskinean zehazten dira Beasaingo Udal Euskaltegian 2022-2023 ikasturtean ikastaro desberdinei aplikatuko zaizkien tasak eta ordainketako baldintzak.*

#### **TASAK 2022-2023 IKASTURTEA**

- *Aurrez aurreko ikastaro orokorra: 1,32 €/orduko*
- *Auto-ikaskuntza ikastaroa: 2,34 €/orduko*
- *AISA ikastaroa: 35,19 €/ikastaroko*
  - *Materiala urritik ekainerako ikastaroetan: 26,17 €*
  - *Udako ikastaroan: 13,08 €*
  - *Ikastaro laburragoetan material kostua ikastaroaren iraupenaren proportzioan kobratuko da.*

#### **ORDAINKETA EPEAK:**

- *Ikasturte osoko ikasleek matrikula-kopurua hileko 8 kuotatan banatuta ordainduko dute, azarotik ekainera.*
- *Urtarrileko deialdian matrikulatzen diren ikasleek bost kuotatan ordainduko dute matrikula, otsailetik ekainera, alegia.*
- *Ikasturte laburretan matrikulatuta dauden ikasleek matrikula kopurua kuota gutxiagotan ordainduko dute. Kuota kopurua ikastaroaren iraupenaren arabera izango da.*
- *Udako ikastaroak: ordainketa ikastaroaren lehenengo 7 egunetan egin beharko da.*
- *Langabezian dauden pertsonentzako beka eskatzen duten ikasleei matrikula ordaintzeko eskatuko zaie, hala badagokio, bekaren ebazpenarekin batera.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Gu tasekiin ados baina gogoratu nahiko genuke adostu genuena euskara ikasketen doakotasunari buruz.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Atzo egindako kontsultari Eusako Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzatik jasotako erantzuna izan da C1 gainditzeko dutenek HABEren frogetan eta 16-35 urteko tartekoak badira doakoa dela. 35 urtetik aurrera hobariak izango lituzke baina ez doakotasuna."

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

### **3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

a.- UDALSAREA. "TOKIKO EKINTZA JASANGARRI ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO AKORDIOA. UDALSAREA 2030 UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA" ERABAKIARI BEASAINGO UDALA ATXIKITZEA. 2022HIBO0108

Lurralde batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman da:

**"AURREKARIAK**

*I.- Beasaingo Udala 21 Udalsareari atxikitako dago 2007tik, tokiko jasangarritasun-politikak planifikatu eta kudeatzeko tresna gisa.*

*II.- 2016ko irailean, atxikitze konpromisoa berritu zen. Konpromiso horren indarraldia 2020ko abenduaren 31n amaitu zen.*

*III.- Garapen Jasangarriko Helburuak behar bezala ezartzeko eta betetzeko, 2015ean Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak "Gure mundua eraldatu: garapen jasangarriko 2030 Agenda", dokumentua onartu zuen eta oraingo koiunturak Tokiko 2030 Agenda berriekin bat egitera edo horietara zuzendutako trantsizioak egitera bultzatzen du.*

*IV.- 2022ko apirileko mezu elektronikoko baten bidez, 2030 Udalsareak akordio berri hau bidali du: "tokiko ekintza jasangarri eta tokiko 2030 agenda Euskadin bultzatzeko akordioa. Udalsarea 2030 udalerriko jasangarrien euskal sarearen berriztapena", 2026ra arte sarea gidatuko duena.*

*V.- Erabaki hori, dokumentu honekin batera doana, aztertu ondoren, Udalbatzari jakinarazten zaio ERABAKI PROPOSAMEN hau:*

Lehenik. Beasaingo Udala, "TOKIKO EKINTZA JASANGARRI ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO AKORDIOA. UDALSAREA 2030 UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA" erabakiari atxikitze eskaera egitea.

Bigarren. Atxikitze eskaera aipatutako akordioan agertzen den II-A eranskineko konpromisoa sinatuta formalizatuko da.

Hirugarrena. Sareko ordezkari gisa, pertsona hauek izendatzea:

Maila politikoan:

Titularra / Titular: Adur Ugartemendia Leunda  
Ordezkaria / Suplente: Edorta Diaz del Rio

Maila teknikoan:

*Titularra / Titular: Jose Ignacio Aramendi Lazkano  
Ordezkoa / Suplente: Jon Eskisabel del Bosque*

*Laugarren. Erabaki honen berri ematea eta II-A eranskina IHOBEn bidaltzea, Alkateak sinatuta."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**b.- TAO ORDENANTZA. ORDENANTZA ALDAKETARI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA. 2021UDBO0127**

Lurralde batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman da:

*"Gaia: TAOren ordenantza aldatzeari buruzko behin betiko onespena.*

**AURREKARIAK**

*1.- 2021-12-27. Udalaren web orrian argitaratzen da araudia egin aurreko kontsulta, herritarrek iradokizunak aurkeztu ahal izateko, 2022-01-12arte.*

*2.- Aipatutako epealdi horretan sei iradokizun aurkeztu ziren eta Udaltzainburuak emandako txostenaren arabera, Udalbatza Osoak 2022-03-03an egindako bileran ondorengo erabaki zuen:*

*Lehenik. Aurkeztutako iradokizunak zati batean onartzea.*

*Bigarren. Onartutako iradokizunak atxikita, TAOren ordenantza aldaketari hasierako onespena ematea.*

*Hirugarren. Jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, GAOean iragarkia argitaratua eta adieraziz epea horretan ez bada inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkezten, TAOren ordenantza aldaketari behin-betiko onartua geratuko dela.*

*3.- GAOan argitaratu zen iragarkia, 2022ko martxoaren 14an. Alegazioak aurkezteko 30 egun baliouduneko epean, 2022ko apirilaren 28an amaitzen zena, partikular baten alegazioak aurkeztu dira.*

*4.- 2022ko maiatzaren 9an, ofizial buruordeak honako txosten hau eman du eta ondorengo proposatu du:*

**ECHEZORTU URRETAVIZCAYA jaunak aurkeztutako alegazioei erantzuna:**

1.- Alegazio-idazkiaren lehenengo puntuaren azalpena. Hauxe dio: "Horretarako, eremu arautu gisa mugatu zen Barrendain plazaren eta hiltegiko zubiaren artean dagoen aparkaleku publiko guztia."

*Puntu hori zehaztu nahi genuke, zuk adierazitako ibilbidean Anbulatorio-Bernedo aldean aparkatzeko aukera baitago.*

2.- Alegazio-idazkiaren bigarren puntuaren azalpena, honako hau adierazten duena: «Orduan azaltzen zen aldaketak behin-behinekoak eta kostu txikikoak izango zirela, eta probaldi baten ondoren emaitzak egiaztatzeko balioko zutela. Bada, ez behin-behinekoa, ez kostu txikikoa.

*Ez dakigu zer adierazpen zehatzi buruz ari zaren, eta baliteke hori ez izatea definiziorik egokiena. Hasieratik, Barrendain plazako trafikoa aldatzeak onurak ekartzen ote zituen aztertzea izan zen egin zen jarduketaren helburua, mugikortasun mota desberdinak kontuan hartuta: oinez, bizikletaz, ibilgailuz...*

*Izan ere, probaldia uste baino gehiago luzatu da hasiera batean, pandemiaren ondorioengatik; izan ere, pandemiak aldaketa larriak eragin ditu beasaindarren mugikortasunean, eta zaila zen normaltasunera estrapolatzeko moduko ondorioak lortzea. Horren zatirik gordinena igarota, Beasaingo Hiri Mugikortasun eta Mugikortasun Jasangarriaren Plana garatzen ari den mugikortasun-ingeniaritzarekin egindako esku-hartzearen emaitzak ebaluatzen ari gar.*

*Ez gaude ados kostu txikiko esku-hartzea izan ez delako baieztapenarekin; izan ere, orain arte, hiri-altzariak eta pintura-lanak birkokatu dira espazioaren berrantolaketan.*

3.- Gernika pasealekuko aparkaleku marroi berria aipatzen duen alegazio-idazkiaren hirugarren puntuaren azalpena:

*Eremu marroia Erauskinetik Gernika pasealekura igarotzeko arrazoia da udalerriko beste gune batzuetatik hurbiltzen diren inguruko herrietatik edo beasaindarretatik datozen bisitariak Esteba Lasa – Oriamendi ardatzean sartzea saihestea, aparkaleku bila, ibilbide luzeagoa eta inguruko aparkalekurako auto-pilaketa handiagoa delako. Horrela, Oriamendin eta Erauskin plazan, eremu marroitik urdinera igarotzean, bizi direnei aparkatzeko aukera ematen zaiela uste dugu.*

*Neurri hori Beasaingo Hiri Mugikortasun eta Mugikortasun Jasangarriaren Plana garatzen ari den mugikortasun-ingeniaritzarekin kontrastatu da.*

4.- Alegazio-idazkiaren laugarren puntuaren azalpena. Hauxe dio: "Lehenik eta behin, Gernikako Arbolako aparkalekua ez da disuasio-aparkatua, erdigunean dagoelako, eta, gainera, ez duelako kentzen beste eremu batzuetan aparkatzea. Eta bigarrenik, disuasio-aparkalekuak hirigunera konektatuta egon ohi dira hainbat garraibide publikoren bidez, eta normalean hobariak izaten dituzte erabilera sustatzeko, baina hemen ez da horrelakorik gertatzen.

*Inoiz ez da baieztatzen Gernika pasealekuko gune marroia disuasio-aparkalekua denik, errotazio handiko aparkalekua baita. Kontrako kontzeptuak dira, disuasio-aparkalekuak aparkaldi luzeetarako pentsatuta baitaude.*

5.- Alegazio-idazkiaren bosgarren puntua azaldu da; puntu horretan, Barrendaingo TAO eremuaren ertz-efektua aipatzen da:

*TAO guneen azterketa da Beasaingo Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Plana lantzen ari den alderdietako bat. Plan horren emaitzak urte amaierarako prest egongo direla aurreikusi da. Diagnostikoa eta ekintza-plana izan ondoren, ekintza sakonagoak egin ahal izango dira araututako aparkatzearekin lotuta.*

*Horregatik, ordenantza aldaketa honek berregokitze-jarduerak proposatzen ditu, egiturazkoak baino gehiago.*

6.- Alegazio-idazkiaren seigarren puntuaren azalpena, honako hau dioena: "Beasaingo herria biztanle kopurua handitzen ari dela ikusita, logikoa da, halaber, parke mugikorra ere handituko dela pentsatzea."

*Iradokitzen duen logika zentzuzkoa izan liteke, Beasainek eta munduko gainerako udalerriek aurre egin behar dioten klima-aldaketaren egoeratik ez balitz. Erronka horren aurrean, erakundeen erantzukizuna da garraio publikoa sustatzeko neurriak aplikatzea, kanpoko joan-etorriari begira, eta barne-desplazamendua oinez edo bitarteko jasangarrietan (bizikleta, adibidez) egiteko. Beasaingo Hiri Mugikortasun eta Mugikortasun Jasangarriaren Planaren zirriborro-fasean dagoen diagnostikoaren arabera, gure udalerriak 1.000 biztanleko ibilgailu pribatuen tasa*



*estatuko batez bestekoa baino askoz handiagoa du, eta, beraz, biztanleen hazkundeak ez luke ekarri behar ibilgailu pribatuen hazkunde proportzionala.*

Jon Echezortu Urretavizcaya jaunak egindako eskabideei dagokienez, eta alde zureko zioen azalpen osoa dela eta, honako hau jakinarazten dizugu:

- 1., 2., 3. eta 4. eskabideak ezetsi egin dira.  
*Egokitzat jotzen da alegazio-idazkiaren*

- 5. puntua, non eskatzen baita 8. artikularen salbuespena kentzea, esaten baita Erauskin plazako 2. zenbakiko egoiliarrei sektore marroian aparkatzea baimenduko zaiela, eta, beraz, ordenantza-proposamena aldatuko da.

*Ondorioz, Lurralde Batzordeak Udaltzari aurkeztu dio hurrengo erabaki-proposamena.*

Lehenik. *Aurkeztutako alegazioak zati batean onartzea.*

Bigarren. *TAO ordenantzaren aldaketari behin betiko onespina ematea, bertan atxikiz onartutako alegazioa*

Hirugarren. *Testu osoa GAoean argitaratzea indarrean sartu ahal izateko."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Ya cuando se presentó la ordenanza anteriormente nos posicionamos en contra sobre todo por la problemática que sigue existiendo en el barrio de la portería, en la que el aparcamiento se ha reducido en la zona residencial. Mostramos nuestras dudas ante ello, sobre todo porque seguimos recogiendo quejas en el sentido de que no es posible encontrar aparcamiento los mediodías. Existe una zona residencial que es para dar servicio a los residentes, lo cual a día de hoy no se hace porque se ha modificado a favor del comercio existente en el barrio. Se nos dijo que no afectaba al aparcamiento los turnos de CAF y por ello se puso la zona roja. Nosotros, sin embargo, lo ponemos en duda por las quejas que seguimos recibiendo de los vecinos. Votaremos en contra."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Aldaketekin azalekoak direnez bat egiten dugu, baina forma aldetik ez zaigu iruditzen nola formulatu den hau. Mugikortasun plana lantzen ari garen honetan, interbentzio pila bat ari zarete egiten: bi noranzkoa berreskuratzeko boladizo bat, rotonda bat itxi duzue, bidegorri bat kendu duzue eta aparkaleku gehiago jarri, baina interbentzio guztiak kotxeen mesederako Alegazioetan aipatzen da mugikortasunaren zain ea zein interbentzio aurreikusten dituen, baina bitartean interbentzio pila bat egiten ari zarete. Forma aldetik ez zaigu egokia iruditzen. Mugikortasun planak esango duenari itxaron beharko genuke. Beraz, abstenitu egingo gara."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "La zona residencial no se ha reducido, se han cambiado los horarios. Lehen goizeko hamarretan amaitzen zena, egun goizeko 8,30etan bukatzen da ulertuz CAFeko langilek hein handi batean ordu horretarako jadanik lanera sartuta daudela eta Porteriko eremua ez dutela erabiltzen aparkatzeko zeren eta lanera sartu eta ez die denborarik ematen. Horrek, noski, beste onura batzuk ekarriko lituzke: Murumendik gurasoek 10,00ak baino lehen 9,00etarako edo lehenago eramaten badituzte beraien seme-alabak eskolara kotxez beharrezkoa bada mugitzeko aukera edukiko lukete eta berdin merkataritza. Hori izan da aldaketa horren arrazoia. Guk ez dugu kexa ofizialik jaso baina, aldaketak azalekoak dira, gehienbat eragindakoak Erauskin gune marroi horren aldaketagatik. Baloratuko ditugu eta ikusiko ditugu. Begiak adi izango ditugu ea benetako

arazoa hori den edo ez eta tokatzen bada aldatuko litzateke. Guk erabakia hartu genuenean argi genuen onural handiagoak izango zirela kalteak baino. Inoiz ezin da denen interesak asetu baina arrazoi horiekin hartu genituen. Esan dituzun hainbat obra ez dute aldaketa hauekin zer ikusirik. Herriak ezin du geldi egon. Egin dira hainbat aldaketa baina mugikortasunarekin azterketa sakona egiten ari gara eta posible da aldaketak egin beharra izatea.”

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “Nik azpimarratu nahiko nuke egin diren aldaketak teknikarien txostenean oinarrituta zeudela. LEBER ingeniariak txosten bat egin zuen 2019. Teknikariek egin dituzte proposamenak eta horien helduz egin ditugu aldaketak. Ez da inprobisatuako zerbait edo gure bat bateko erabaki bat. Txosten hori zuek eskutan duzue. Orain dela urte eta erdi batzordean berri eman zen eta teknikariei galderak egiteko aukerak izan zenituzten. Aurrera eraman ditugun proiektuak, atzetik txosten teknikoak dituzte, ados egon edo ez. Orain arte LEBERen txosten horren bitartez eta hemendik aurrera aukera izango dugu txosten horretatik haratago joan eta mugikortasun planaren ondorioak aztertu eta hurrengo pausoak eman. Esaten duzue egiten ari garen interbentzio guztiak kotxeen alde direla. Jakin nahiko nuke ez Erauskin plazan egin zen interbentzioa kotxearen aldekoa den edo Barrendainen egiten ari garen proba, kotxeen aldekoa den, izan ere Barrendainen oinezkoen eta txirriinduan dabilzanen segurtasuna begiratzen ari gara. Zalantzan jartzen dut ea zergatik esaten duzuen Beasainen kotxeen aldeko proiektuak ari garela garatzen.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Teknikoek egin dituzten txostenak dira egingarriak diren edo ez jakiteko. Gobernuak enkargatzen dituen txostenak, beraien borondatean arabera. Alegia, zuk nahi baduzu boladizo bat egin, esango dizue egingarria den edo ez. Ez dugu esaten obra horiek ilegalak direnik. Esaten duguna da egin beharrekoak ziren edo ez. Mugikortasun azterketa sakona egiten ari bagara, zergatik egiten dira interbentzio horiek ez badakigu beharrezkoak diren edo ez?. Boladizoa egin zenean, mahai gainean jarri genuen ez zegoela ezta trafikoko ikerketa bat ere.”

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “Oraintxe aipatu dudana. LEBER ez du esango boladizoa egin behar den edo ez. LEBERek esango dizu Igartza Oleta norabide bikoitza komeni den edo ez. Esaten zuen, Igartza Oleta eta Oriamendin hobekuntzak eta kalteak baloratu egin beharko liratekela. Txosten horretan baita ere esaten zen norabide bakarreko bideak ematen direla baina kasu konkretu honetan Oriamendi ardatza hartuta norabide bikoitza izatea ondo ikusten dela.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ez dakit teknikoekin zuen lana egiteko modua nola den, baina guk teknikariei izugarritzko errespetua diegu beraiek dutelako ardura teknikoa.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Nik esan nahi nuena zen, zuk zerbait egiteko asmoa baduzu teknikoek egingo duena da teknikoki bideragarria egitea.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bere datuak ez badira horren aldekoak ez du horrela esango.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Tranpa ez du egingo, noski. Nik esaten dudana da teknikoek txosten batzuk egin dituztela zuek horrela eskatuta, zuen borondatea zelako hori egitea.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Guk trafikoko azterketa eskatu genuen eta beraiek beraien irizpidea ematen dute. Gero hemen erabakitzen da.”

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “Guk ez dugu esaten erabaki hau hartu nahi dugu eta bilatu nola justifikatu.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Demagun orain mugikortasunaren sakon horrek aurreko interbentzio guztiak hankaz gora jartzen dituela.”

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “Zalantzan jartzen dut. Enpresa adituak dira gai horretan eta irizpide batzutan ezberdintasunak egon daitezke, baina dena goitik behera ez dute uzte botako duenik. Edozein kasutan bera garaian hartutako erabakiak eta hartzen ditugunak txosten teknikoak kontuan izanda hartzen dira. Hmendik gutxira mugikortasun planaren diagnostikoa jasoko dugu eta momentu egokia izango da iksteko zein neurritan asmatu den eta etorkizunari begira zein erabaki hartu behar diren.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Guk ere teknikoei errespetu guztia diegu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo ordenantzaren testua onartu da:

## “TRAFIKO ETA APARKAMENDUAREN ORDENANTZAREN ALDAKETA

### 1. artikulua

Trafiko eta Zirkulazio arloko Ordenantza hau emateko eskumenak Udalari eman dizkioten Legeak: apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen, 25.2.g) artikulua eta martxoaren 2ko 339/1990 Errege dekretu Legegilearen 38. artikulua (martxoaren 24ko 5/1997 Legearen artikulua bakarraren b) atalak aldatua), Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legearen testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak indargabetua.

### 2. artikulua

Zerbitzu publiko horren helburua araututako aparkalekuen Udal Zerbitzu publikoa arautzea eta aparkaleku eskariari aurre egitea da, hiriaren kalitatea eta irisgarritasunaren helburu orokorrak kontuan hartuta, erabilera publikoa duten bide eta aparkalekuetan ibilgailuen aparkatze-aldiak modu funtzional batean antolatzea, eta betearazteko ere neurriak ezartzea.

### 3. artikulua

Araudiaren barruan aparkatzeko denbora tartea mugatuko da, baita kokalekuak ere, gunek eta ordutegiak bereiztuta, Ordenantza honetako arauen arabera. Araututako aparkaleku gisa behar den bezala seinaleztatuta dauden gunek edo bide publikoetan ibilgailu bat aparkatzeagatik ordaindu egin beharko da. Ezkiaga auzoko gunek gorrian egoiliar txartela dutenen aparkatu dezakete.

### 4. artikulua

Ordenantza honetako 2. artikuluan zehazten diren bide publiko eta aparkalekuetan aparkatu ahal izateko arau orokor eta zehatz guztiak betetzeaz gain, eta ibilgailuak aparkatzeko seinaleek adierazitakoa jarraitzeaz gain, haizetakoaren barnealdean, eta

kanpoaldetik osorik ikusteko moduan, makina automatikotik hartu eta aparkatzea baimentzen duen tiketa. Ez ordea, eremu baimendutako biztanleek, EZ baitute inolako bereizgarririk erakusteko betebeharririk izango.

Modu berezian, eta trafikoaren edota aparkalekuen gorabeherak hala eskatzen dutenean, Alkatetza-lehendakaritzak Ordenantza honetan araututako aparkatze-baldintzak aldi baterako aldatu edo indar gabe uzteko egoki deritzon neurriak hartu ahal izango ditu.

Aparkaleku mugatu moduan seinaleztatutako gunetan ez dute aparkatzeko txartelik jarri beharko ondoren zehazten direnak:

- Udal Zerbitzu publikoekin lotura duten ibilgailuak.
- Karga eta deskarga egiten ari diren ibilgailu komertzialak, horretarako egokitutako aparkalekuetan.
- Auto-taxi ibilgailuak gidaria zerbitzua ematen ari denean eta bertan dagoenean.
- Larrialdietako ibilgailuak zerbitzua ematen ari direnean.
- Ibilgailu automobilak, gidaria edo bidaiariren bat barruan dagoenean eta aparkatze-aldia 5 minutu baino gutxiagokoa denean.
- Egoiliarrentzako txartela duten ibilgailuak.
- Pertsona ezinduek, araututako aparkalekuen udal zerbitzuaren sistemak araututako kaleetan aparkatu ahal izango dute, aurretik parkimetroetan behar den ordainketarik egin gabe eta ordutegi mugarik gabe.

#### 5. artikulua. Motozikletak eta ziklomotorrak

TAO gunek motozikleta eta ziklomotorrentzako doanik egokitutako gunek ditu. Ondorioz, motozikletak eta ziklomotorrak gainontzeko motordun ibilgailuentzat egokitutako aparkalekuetan aparkatzea debekatuta geratzen da. Arau-hauste hau zigortu egingo da.

#### 6. artikulua

Aparkaleku mugatuko bi gune egokituko dira (Erdigunea eta Ezkiaga auzoa), eta erdigunean sektore ezberdinak izango dira.

Sektoreak ondorengo hauek dira:

- Sektore Marroia: Gernikako arbolaren pasealekuko aparkalekua. Oinezko paseoaren aldea dagoen errenkada osoa eta Bernedoenea (Osasun zentroaren parean)
- Sektore Urdina: Esteban Lasa (1etik 7ra eta 2tik 12ra), Esteban Lasaren barrualdean dagoen aparkalekua (4tik 12ra), San Inazio (1etik 19ra eta 2tik 14ra), Oriamendi (Erauskin plazatik Garmendia Otaola kaleko bidegurutzeraino), Trenbide (Barrendain plazatik Joan Iturralde kaleko bidegurutzeraino), Gernika pasealekua (marroi koloreko ez diren aparkalekuak), Kale Nagusia 40ko atzealdea eta Erauskin plaza.
- Sektore Berdea: Gipuzkoa plazan eta Zaldizurreta kalean 9tik 19ra, atzealdean kokatuta dauden aparkalekuak.
- Gune gorria: Ondorengo kale hauetan dauden aparkalekuak: Joan XXXIII kalea, Arantzazu kalea, Mateo Muxika kalea, Mariarats kalea (2tik 11n dagoen aparkalekuraino, aparkaleku hau kanpoan utziz), Oriako pasealekua, Ezkiaga etorbidea (Joan XXIII kaleko bidegurutzetik Oriako pasealekuko 18raino). Jose Miguel Iturriotz 19 eta Jose Miguel Iturriotz 21, 23, 25 eta 27 atzealdeko aparkalekua. Gune hau kale hauetan bizi direnentzako bakarrik izango da.

Gune gorriaren ordutegia hau izango da: Astelehenetik ostiralera 23:00etatik 08:30etara.

Beste sektore guztientzako ordutegia hau izango da: Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, larunbatetan 09:00etatik 13:00etara.

Abuztuan eten egingo da araututako aparkaleku sistema.

## 7. artikulua

Ordenantza beteko dela bermatzeko, kontrol zerbitzu bat ezarriko da, horretarako behar diren bitarteko material zein pertsonalekin.

## 8. artikulua

Aparkatzeko gehienez denbora-tarte hauek ezartzen dira:

- Sektore Marroia: Gehienez ordu eta erdi. Ezingo da sektore honetara bueltatu ondorengo ordubetean.
- Sektore Urdina: Gehienez 4 ordu.
- Sektore Berdea: Egun osoan aparkatzea baimenduko da.
- Gune gorria: Aipatutako kaleetan bizi direnentzako eta ordutegi mugarik gabe.

Egoiarraren txartela duten ibilgailuek erdiguneko sektore guztietan aparkatu ahal izango dute denbora-mugarik gabe sektore marroian izan ezik, horretarako ezarritako kuota ordainduta. Gune gorrian ere ezin izango dute aparkatu.

Gune gorriko egoiliar txartela duten ibilgailuek, erdiguneko sektoreetan ezin izango dute aparkatu.

Erabiltzaile guztientzako eta sektore guztietako aparkalekuetan lehenengo 15 minutuak doan izango dira, baina TAO egoiliar txartela ez dutenek sektore guztietako sisteman matrikula sartu beharko dute, eta egoiliar txartela dutenek sektore marroian bakarrik sartu beharko dute matrikula.

## 9. artikulua

Egoiliartzat hartuko dira Trafiko Zuzendaritza Nagusian artikulua honetan zehazten diren kaleetan erregistratuta dauden ibilgailuak, baldin eta jabea ibilgailuaren helbide berean erroldatuta badago.

Autoak edo ibilgailu mistoak izan beharko du.

Kale-zerrenda:

### GUNE URDINA:

Zaldizurreta (1etik 19ra), Esteban Lasa, Martina Maiz, Igartetxe, Bista Alai (10etik 16ra eta 9tik 19ra), Andre Mari (1etik 13ra), Erauskin (2-4 eta 7), San Inazio, Urbialde plaza, Oriamendi (4tik 30era eta 3tik 29ra), Nekolalde (2tik 24ra eta 7tik 27ra), Garmendia Otaola 1-2-3, Barrendain plaza, Nafarroa etorbidea (1etik 25era), Kale Nagusia, J.M. Iturriotz (1etik 15A-15B-15C-15Dra eta 2tik 16ra), Bideluze plaza, Jose Martin Arana kalea, Zazpiturrieta.

### GUNE GORRIA

J.M.Iturriotz 19, J.M.Iturriotz 21, 23, 25 eta 27 atzealdeko aparkalekua, Joan XXIII kalea, Arantzazu kalea, Mateo Muxika kalea, Mariarats kalea, Oriako pasealekua eta Ezkiaga etorbidea.

#### GUNE MARROIA:

Gernikako arbolaren pasealekuko aparkalekua. Oinezko paseoaren aldea dagoen errenkada osoa eta Bernedoenea (Osasun zentroaren parean)

#### GUNE BERDEA:

Gipuzkoako plaza.

#### 10. artikulua. Tarifak

Tarifak, Udalak bere garaian onartutakoak izango dira eta Ordenantza Fiskalean jasota egongo dira. Gune gorriko egoiliar txartelak dohainik izango dira.

#### 11. artikulua. Salaketen ordainketa

Kudeaketarako sistemak 14. artikuluan a, b eta c ataletan jasotako arau-hausteen salaketak berehala ordaindu ahal izateko aukera ematen du, beti ere ordaindutako denbora amaitu zenetik bi egun igaro baino lehenago ordaintzen bada eta zerbitzuek ibilgailua erretiratzeko edo ibilgetzeko neurririk hartu ez badute. Parkimetroan ordaindu beharreko kopurua arau-haustearentzako ezarritako zigorraren bostena izango da.

Ordaintzeak ez du esan nahi ibilgailuak aparkatutako tokian jarraitzerik daukanik, berehala erretiratua izan behar du, edo bestela ibilgetua edo bide publikotik erretiratua izan daiteke, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 104 eta 105 artikuluek ezarritakoaren arabera.

Aurre ordainketa parkimetroan egingo da.

#### 12. artikulua. Egoiliarraren txartela

Egoiliar txartela lortzeko, inprimaki ofiziala behar bezala beteta aurkeztu beharko da, ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia konpultsatuarekin batera.

Ibilgailuko egoiliar txartel bakarra banatuko da.

Egoiliar txartela duten pertsonak izango dira bereizgarri horren erantzuleak. Beraz, helbide- edo ibilgailu-aldaketak Beasaingo Udalean jakinarazi beharko dituzte, sor litza-keen ondorioei begira.

Txartelean ibilgailuaren matrikula eta zein urtetan egongo den indarrean zehaztuko dira, gune gorrikoak izan ezik, hauek ez dira iraungiko.

Egoiliar txartela emateak tasak sorraraziko ditu; Udalak zehaztuko ditu tasa horiek, urtero, ordenantza fiskalaren bidez.

Egoiliar txartela lortzeko bete beharreko baldintzetako bat aldatzen bada baimendutako epean, txartela baliorik gabe geldituko da eta egoera eman denetik kontatzen hasita, 7 egun naturaleko epean bueltatu beharko da udaletxera, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Egoiliar txartel baten titularrak etxebizitza edo ibilgailua aldatzen baditu, etxebizitza edo ibilgailu berriari dagokion txartela emango zaio. Ez du tasarik ordaindu beharko, etxebizitza berria gunearen barruan baldin badago. Halaber, aurreko txartela itzuli eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren kopia bana ere aurkeztu beharko du. Honako arau hau bete ezean, aurreikusitako zigorrez gain, egoiliarrentzako txartela ezeztatu egingo zaio, eta ezin izango du berririk atera, horretarako eskubidea izan arren.

Egoiliar txartela lortu ahal izateko eskatzaileek ez dute Beasaingo Udalarekin inolako zorrik izango.

Zirkulazioko baimena enpresa baten izenean duten ibilgailuen jabe diren egoiliarrek ere eskatu ahal izango dute txartel berezi hori. Kasu horretan, enpresak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute egiaztatzeko ibilgailu hori eskatzailearen erabilera pertsonalerako dela.

Ibilgailua (leasing edo renting) alokairuan duten egoiliarrek ere eskatu ahal izango dute txartel berezi hori, ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari bezala egon behar dutelarik.

Txartel bereziaren baldintza orokorrak egoiliarrentzako txartelarentzako ezarritakoak berberak izango dira.

Txartelaren indarraldia aipatzen den urte naturalaren bat egingo du, urtea pasa ondoren txartela iraungi egingo da eta berria hartzea beharrezkoa izango da eta prezioa dagokion Ordenantzan jasotakoa izango da.

### 13. artikulua

Alkatetza-lehendakaritzak txartel berezia eman ahal izango du gune jakin baterako eta urtebeteko balioarekin:

- Ordezkaritza diplomatikoen Ibilgailuentzako.
- Udalaren iritziz baldintza bereziak dituzten ibilgailuentzako.

Txartel hori lortzeko, Alkatetza-lehendakaritzak kasu bakoitzean eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Txartel berezi horri ere Ordenantza honetatik dagozkion artikulua ezarriko zaizkio.

### 14. artikulua

Ordenantza honetako artikuluek ezarritakoa urratzeak edota Alkatetza-lehendakaritzak honen garapenean ezarritako beste xedapenen bat urratzeak ere, legez ezarritako prozeduraren bidez zigortuko dira.

Ondorengoak hartuko dira arau-haustetzat:

- a. Aparkatzeko ordutegi-txartelean zehazten den denbora gainditzea.
- b. Aparkatzeko ordutegi-txartelik gabe edo behar bezala erakutsi gabe aparkatzea.
- c. Aparkatu ahal izateko txartel manipulatu edo faltsua erabiltzea.
- d. Aparkatu ahal izateko tiketa edo egoiliar txartel baliogabetua, iraungia edo desegokia erabiltzea.
- e. Egoiliarrentzako txartela erabiltzea, bertan zehaztutako ibilgailuaren jabea aldatu denean.
- f. Egoiliar txartelen titularrek helbide aldaketaren gaineko edo ibilgailuaren eskualdatzearen gaineko jakinarazpenik ez egitea.

- g. Txartel berezien erabilera okerra egitea.
- h. Motozikleta edo ziklomotorra gainontzeko motordun ibilgailuentzat egokitutako tokian aparkatzea.
- i. Aparkatu ahal izateko egoiliar txartel gabe aparkatzea edo txartela ikusten ez den lekuren batean aparkatzea.

#### 15. artikulua

14. artikuluan tipifikaturiko arauak isunarekin zigortuko dira, Zirkulazioko Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren arabera. Era berean, c), d), e), f), g), ataletan txartel berezia kentzeko aurreikusitako arau-hausteak zigortzeko, horretarako ezarrita dauden legezko baliabideak erabiliko dira.

#### 16. artikulua

19. artikuluan ezarritako zigorrez gainera, 14. artikulua a) eta b) atalei dagokienez, ordaindutako denbora bikoizten bada, tipifikatzen diren arau-hausteak gertatuz gero, ibilgailuak bide publikotik kenduko dira; izan ere, zerbitzu publikoa asaldatzen dutela ulertuko da.

#### 17. artikulua

17.1. Ibilgailu bat bide publikotik kentzen bada, ibilgailuaren gidariak, edo haren ordezkoa den titularrak, honako kontzeptu hauek eragindako gastuak ordaindu beharko ditu:

17.1.1. Bide publikotik kentzea eta ibilgailuen udal-biltegira eramatea.

17.1.2. Ibilgailua udal-biltegira eraman eta 24 ordura, bertan egoteagatik eguneko ordaindu beharreko kopurua.

17.2. Gastu hauen guztien zenbatekoak dagokion Zerga Ordenantzan zehaztuko dira. Zenbatekoak eginiko arau-hausteari dagokion isunarekiko independenteak izango dira.

#### 18. artikulua

14. artikulua zehaztutako arau-hausteak, c), d), e) ataletan zehaztutakoa izan ezik, arinak izango dira; c), d), e) ataletan zehaztutakoak arau-hauste larriak izango dira.

#### 19. artikulua

Arau-hauste arinak 40 €-ko zigorra izango dute.

Arau-hauste larriak 200 €-ko zigorra izango dute.

#### 20. artikulua

Ordenantza honetan jaso ez diren kasuetarako, ondorengoak hartuko dira kontuan: Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantza eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legea, eta bere garapenerako Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra.

Xedapen gehigarri bakarra



Ordenantza hau aplikatu eta interpretatzeko eman beharreko aginduak emateko gaitasuna ematen zaio Alkatetzari.

#### Azken xedapena

Ordenantza hau bere 20 artikuluekin, xedapen gehigarri bakarrarekin eta azken xedapenarekin indarrean sartuko de Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo langunean.

#### Indargabetzeko xedapena

Ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera, orain onartzen den testuaren aurkakoak diren edo horrekin bat ez datozen maila bereko edo beheagoko xedapena guztiak indargabetu egingo dira.”

**5.- MOZIOA:** GOIERROTIKen mozioa: COVID pasaportearen gaitzespena eta etorkizunean berriro ez ezartzeko eskaera.

Alkate jaunak (EAJ-PNV), azaldu du mozioak tratatzeko prozedura zein den, hau da, mozioa irakurri, udal taldeek eztabaidatu eta bozkatu. Horren ondorioz, GOIERROTIK kolektibotik Osoko bilkurara bertaratu direnei hitza eman die goian aipatutako espedientean eta zinegotzi guztiei helarazi zaien mozioa irakurtzeko, baina ordezkari batek esan du beraien asmoa ez dela mozioa irakurtzea baizik eta adierazpen batzuk azaltzea.

Alkate jaunak esan du ez zaiola egokia iruditzen eta denbora kontrolatuko duela adierazpen horiek egiteko baina berez udal taldeak mozioari buruz jardun beharko luketela.

GOIERROTIK kolektiboko ordezkari batzuk hainbat adierazpenak egin dituzte (aipatutako ideiak laburtuta jasotzen dira eta grabazioaren lotura itsasten da):

#### 1. Interbentzioa

- GOIERROTIK Alkateari eskerrak eman, COVID pasaportearen gaitzespena eta etorkizunean berriro ez ezartzeko eskaerari buruzko mozioa azaldu eta tratatzeko aukera emateagatik.
- COVID pasaporteak haur, nerabe eta helduentzat suposatu duen diskriminazioa salatzen dugu.
- Neurri zigortzailea izan da eta ez osasun neurria.
- Txertatzea behartu du.
- Hainbat tratatu eta hitzarmenetan jasota dauden oinarrizko eskubideen urraketa suposatu du.
- Konstituzioaren 9.eta 14. artikulua aipatu eta irakurtzen dira.
- Ordenamendu juridikoa ez da errespetatu. Ordenamendu juridikoaren hierarkia ez da kontutan izan.
- Lehendakariaren Dekretua ez zen aplikatu behar: desobedientzia zibila.
- COVID pasaporte ez da legala izan.
- Horren aurrean, hainbat langileek presioa jasan dute zerbitzu erabiltzaileei exijitu behar izan direlako.
- Mozioak dituen zazpi puntuak (eskaerak) banan-banan tratatzea eskatu dute eta beraiekiko zinegotzien iritzia jakin. Adibidez, lehenengo puntuari dagokionez, COVID ziurtagiriak oinarrizko eskubideak urratu ditu?.

## 2. Interbentzioa

- Gracias por atender y escuchar.
- Se ha presentado la vacuna como vía única como solución para la pandemia, pero en realidad son terapias experimentales autorizadas por vía de emergencia.
- En el resto de vacunas hacen falta de cinco a diez años para su uso en humanos.
- Los vacunados no tienen opción de demanda contra los fabricantes, al contrario de lo que ocurre con otras vacunas.
- Existen efectos adversos de la vacuna pfizer y muchas personas han resultado afectadas de forma grave.
- En España por la vacuna, se están registrando mayor número de muertes y no se sabe a qué se debe.
- Se dan a conocer datos de los fallecimientos producidos en Beasain desde 2015 a 2020. Todavía no se conocen los datos del 2021.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Mozioa aurkeztea onartu zitzaizuen eta tokatzen dena da tratatzea eta bozkatzeta. Azalpen horietarako, hau ez da foro egokia.”

## 3. Interbentzioa

- Neurri asko hartu dira zentzu gabeak
- Komunikabideetan neurri hauen zabalkuntza egin da eta neurriak jarraitu ezean, errudun sentitu aratzi digute.
- Konfinamendua, neurri murriztaileak eta jarri diren isunak baliogabetuak izan dira.
- Horrek guztiak, ordea, ez du ondorio politikorik izan.
- El comité de expertos entre los que se encontraba Fernando Simon si bien existió, no era tal.
- Las medidas adoptadas no han sido de carácter epidemiológico, sino que han sido medidas políticas.
- Neurri horiek ez zuten osasunarekin zer ikusirik.
- COVID pasaporte txertatzeko helburuarekin sortu zen.
- COVID pasaportearen indarraldia ez da oraindik agortu, Bruselas lo quiere hacer extensivo hasta junio de 2023.
- Europako Nazioarteko Ituna aipatzen da.
- Ondorioa larria da politika sanitarioa, farmazeutikoen esku uzten delako.

## 4. Interbentzioa

- Gracias por escuchar. Ya sabemos que no es el momento.
- Lo que ha pasado es grave.
- Hay personas que creen en la vacuna y se la han puesto.
- Otras no creemos en ella y además se ha demostrado que tiene efectos secundarios.
- Lo que es cierto es que no es obligatorio ponérsela, pero se nos empieza a coaccionar.
- Se nos impone un código QR, aunque con él también se puede contagiar.
- Si no tienes el código QR, empiezan los conflictos, pero parece que no ha pasado nada.
- El Ayuntamiento debería analizar qué ha pasado y cuál sería la respuesta en caso de que nuevamente se pida el certificado.
- Otra vez se acataría la Orden?.
- Nosotros hemos sido discriminados y nos hemos sentido despreciados.

- Ha sido grave lo que ha pasado.

## 5. Interbentzioa

- Bi kolektiboek jasan dutena azaltzen da: haur eta gazteak eta adinekoak.
- Haur eta gazteak kolektiboa:
  - Ez dira kontuan izan haur eta gazteek dituzten beraien iritzia azaltzeko, aisialdirako, jolasa egiteko eta abar, eskubideak eta ezta ere ez dira defendatzeko neurriak hartu.
  - Lehenengo kaltetuak izan dira, beraien eskubideak baztertuak izan direlako
  - Haurrak aire freskorik gabe geratu dira.
  - Gazteak kriminalizatuak izan dira, leporatu zaielako kutsatze-arriskua sortu dutela beraien portaerarekin.
  - Hauek guztiak eragina izan dute osasun mentalean.
  - Ikastetxeak kontrolerako espazioak bihurtu dira.
  - Haur eta gazteen interes gorena eta konfidentzialtasuna urratu egin dira.
  - COVID pasaporteak ez izateagatik kiroldegira, Usurbe zinera edota liburutegira ezin joateak haurrentzat ulertezina izan da eta gursoentzat tristea.
- Iton-amona kolektiboa:
  - Zaharren egoitza pandemiaren epizentroa izan da.
  - Hilkortasuna ikaragarria izan da.
  - Askatasun urraketa eman da, egoitzen barruan itxi eta isolatu egin ditugu.
  - Protokolo zuhurrenak ezarri dira.
  - Bisitarik eta paseorik, ez.
  - Ondorio negatiboak ikaragarriak izan dira, egoera negargarria, bizirik baina hilda.
  - Bakarrik hiltzen utzi ditugu.
  - Bizimodu hau ez da jasagarria eta sostengarria, bizitzarekin talka egiten du.
  - Bizitzea eta bizirik irautea ea da berdina.
  - Mendekotasuna eta obediencia eskatu zaigu, baina egoera hau gainditzeko benetako zaintzan eta elkartasunean aritu beharko ginateke.

## 6. Interbentzioa

Gaiaren inguruan debate serio bat egitea eskatzen du herriarentzat mesederako izango litzatekeelako.

Nekane Jurado ekonomistak egoerarekiko egindako analisiak jasotzen dituen txostena mahai gainean utzi ditu.

Jarraian Alkate andreak (EAJ-PNV) udal taldeei hitza eman die mozioarekiko beraien iritzia azaldu nahi ezker.

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros sobre el debate que se ha traído aquí no tenemos mucho más que decir que sobre lo que se ha podido decir en cualquier otra población o mesa. El ánimo y el espíritu de todas las medidas COVID que se adoptaron fue por el bien de la salud.”

Kolektibokoek protesta egin dute eta Alkateak errespetua eskatu du.

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Las razones ni interesan, ni se las creen. Estamos en contra.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Gur interesgarria iruditzen zaigu. Eztabaida guztiak bere lekua izan behar dute, gai mahai gainean jarri eta argudio guztiak entzutea beti izaten da interesgarria. Guk gaur gure iritzia azalduko dugu eta uste dut errespetuz gure erantzuna ematea dagokigula. Mozio honetan legeak behin eta berriz aipatzen dira eta zentzu horretan ulertzen dugu legeak interpretazio asko izan ditzakeela, baina askotan legea interesen arabera interpretatzen da. Gu ez gara juristak eta ez gara horiek baloratzea, gainera euskaldunoi, salbuespenezko legedi asko aplikatu zaizkigu egoera ezberdin askotan. Ez dugu fede gehiegirik lege kontutan. Hau horrela izanik COVID ziurtagiriak zenbat eskubide urratu dituen argi dago eta horrekin bat egiten dugu, erabat. EH Bilduk pandemiaren hasieratik esan du ezin diogula aurre egin neurri murriztaileekin. Egia da bi urte hauetan askotan aplikatu diela zentzurik gabeko neurriak. Bat egiten dugu esaten denarekin, hau da, COVID pasaporteak inolako bermerik ez izatearekin eta iruditzen zaigu zoritxarrez ekarri duena izan dela komunitario modu batean eztabaidetan mugatzea eta batzuentzat polizi lanak egin beharra izatea. EH Bilduri aurpegiatu zaigu neurri hauek behar bezala ez gaitzetsi izana eta aurka ez azaldu izana. Kutxatu ez izateko zenbat neurri, distantziak direla eta musukoak jartzeko neurriak babestu ditugu, baina bereziki gure borroka izan da osasun publiko sistema indartzean, bai legebiltzarretan egindako eskaeretan, herrietako anbulategietan eta egin ditugun elkarteratzetan. Behin eta berriz ikusi dugu Jaurlaritza dela egoera horren erantzule zuzena eta osasun arloko profesionalak kontratatuz erabiltzaileek erdiak jartzeko aukera genuen eta horretan aritu gara intziditzen. Zenbat plataformetatik salaketa eskasa egin dugula aurpegiatu zaigu, baina balioan jarri nahi nuke bai Legebiltzarretan eta baita ere EH Bilduk dituen alkatetzetan pandemiaren arrear izandako jarrera eredugarriak. Legebiltzarretan mozioa hau aurkeztu zenuten astean bertan, 3.000 profesional berri kontratatzeke proposamena egin genuen, osakidetzako lehen arretak bizi duen egoera onartezina behin et berriz aipatu da eta EH Bilduk Euskal eta Nafar gobernuekin partida hori handitzea adostu zuen. Beasainen EH Bilduk oposizioan egonda ere gorra egin zaigu pandemia hau udal talde bezala. Hasieratik eta etengabe proposamenak egin ditugu eta batzuk aipatuko ditut: konfinamenduko boluntarioen sarea, autonomo eta merkatariarentzat diru lerroa, langabezian geratu ziren emakumeen erregimen bereziko langileentzat laguntza ekonomikoak proposatzea. Haur eta menpeko zaintzarako diru lerroak, eskolako materiala eta eskolaz kanpoko ekintzak egiteko laguntzak emateko proposamena, eguneko zentroko eta egoitzetako langileen errefortzua eta EPI eskaerak. Tratu txarrak jasandako eginkizunak eta GLLentzat partidak handitzea. Horietan jarri dugu indarra. Ezinbestekoak iruditzen bait zaigu. Pandemia hasieratik hona, hau da, bi urte hauetan, kiroldegian 1.700 familiek baja eman dute arrazoi ezberdinegatik, baina askok beraien egoera ekonomikoa asko okertu delako. Gu eguneroko politikan horretan saiatzen gara. Gaur ere bai musikaren inguruan hobarietan aritu gara, euskaltegiko tasak, kultur ekitaldietarakoak..etengabe saiatzen gara, gure ustez, herritarrei lagunduko dien proposamenak egiten. Penaz ikusi dugu sistemaren makinariak nola trabatu gaituen eta nola jarri gaituen herritar guztiak benetan interpelatu behar zena ez interpelatzen eta legeen aipamena egiten duzuen aipatu nahiko genuke, Udalak abenduaren 14ko Dekretua bete du, Dekretuak bete beharrekoak direlako. Egia da, askok modu malguagoan saiatu direla betetzen eta beste batzuk zorrotasun handiagoz. Gu ere hor saiatu ginen ekitaldiak kanpoan egiteko baliabideak ezartzen eta nolabait ere egoera hori arindu zitekeen gauzak mahai gainean jartzen. Mozioan egiten dituzuen eskaeraren inguruan esan, espero dugula zinez antzeko egoera batean ez aurkitzea eta horrela bada berriz ere zaintza komunitarioa erdigunean jarriz eta hezkuntza osasun-sistema publiko hori indartuz, gure ahalegina horretan jarriko dugu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ni espresuki mozioaren inguruan zeren eta Nerea, nik uste dut pixka bat luzatu zarela eta ez dakit demagogia, baina zure liburua ederki saltzen saiatu zara. Zentzu horretan esango nuke Elkartekoekin elkartu nintzanean, solasaldi

atsegina eta luzea izan genuela eta ilunabar luzea eduki genuela eta aukera izan genuela partekatzeke eta baita ere enpatizatzeko, bakoitzak bestearen aldean egoteko. Azken finean bakoitzak hartzen duen erabakia guztiz zilegi da eta hori nik behin eta berriz nabarmenduko dut, baina agure kasuan udalaz gaindi eratorritako erakundeek jarritako hainbat arau betetzeko betebeharra geneukan eta hitza itsusia da baina beteko ez bagenu prebarikatu egingo genuke. Beraz, hori horrela izanik, esan zitzaizuen. Badaude herritarren interesak defendatzeko erakundeak. ARARTEKOA hor dago non zuen iradokizunak, kexak planteatu ditzakezue. Horren arabera, ikusten denean konportamendu batzuk ez egokiak direnak ARARTEKOAk segituan deitzen du eta instrukzioak bidaltzen ditu. Baita herriko udaletara ere. ARARTEKOArena bideratu nizuen eta bestela Auzitegiek esan beharko dute bere garaian agindutako edo dekretu horiek legezkoak ez direnik. Guk beti bat egin dugu. Zuekin partekatutako hainbat gauza gustuko ez izan edo ez, guri betetzea dagokigu. Horren ondorioz, gure bozka aurkakoa izango da eta besterik ezean bozketara pasatuko ginateke:

Aurkako botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aldeko botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, mozioa ez da onartu.

## **6.- BERRI EMATEA:**

Ezagutzera eman da ondorengo Ebazpenen zerrenda:

- 2022ko maiatzaren 2tik 22rarte emandako Ebazpenak.
- 2022ko maiatzaren 2tik 22rarte Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

Honen inguruan ez da inolako adierazpenik egin.

## **7.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

### **DIRULAGUNTZAK**

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Hace un par de semanas en la última junta de Portavoces, puse encima de la mesa las ayudas a las personas desplazadas o a las acogidas por la guerra de Ucrania y ahora también quiero poner encima de la mesa la solicitud de poder emitir una ayuda puente a las personas refugiadas de Ucrania. Hay que tener en cuenta que llevamos más de tres meses de guerra y más de seis millones de desplazados. Tanto el Gobierno Vasco como el Gobierno de España han dado a conocer que están trabajando en unas ayudas para el mismo fin. Nosotros creemos que nos tenemos que adelantar y tener ayudas para estas personas que lo requieran, porque muchas de los desplazados se han visto forzados a abandonar sus casas dejándolo todo. Proponemos que se aprueben ayudas para los gastos básicos: transporte, telefonía, necesidades primarias. Tenemos que estar preparados porque hasta que se activen las ayudas del Gobierno Vasco y del Estado, pueden pasar más de tres meses.”

ERASO MATXISTEN GIDA

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Guk azkeneko aipamen bat egin nahi dugu eraso matxisten gidan inguruan. Ametsek batzordearen amaieran oso gaisetik aipatu zigun Jauraritza gida bat ateratzekoa dela eta Elgarrestari aipatu ziola festak gainean genituela. Gure sorpresa izan zen hiru egun geroago Teleberrin azaldu izana Beasain aintzidari izan behar zela gida hau martxan jartzen. Guri eraso matxisten aurka egiten den edozein partekatutako gidarekin ados gaude eta ez dugu zalantzan jartzen gida horren egokitasuna, baina gustatuko litzaioguke udal mailan horren berri aurretik jakitea, kontuan izanda gainera orain dela gutxi berdintasun kontseiluko arautegia onartu berria dugula. Zer gutxiago partekatzea bozeramaileekin, talde feministekin, prentsan horrela entzun beharren ordez.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Komunikabideak zuek gu bezain ondo ezagutzen dituzue eta ostegunean batzordean Ametsek hori esanda eta ostegunean bertan izan zenuten bilera udarako festei begira Foru Aldundiatik jarriko den protokoloa dela eta. Kointziditu zuen astelehenean Eudelek eta Emakundek gida hori aurkeztu behar zutela eta komunikabideak, ez guk deituta, ikusita hurrengo herriko festak Beasaingoak izango zirela beraiek etorri ziren gugana informazioaren eske. Ez da ezer bilatua izan. Hori horrela izan da.

Informatzeko ez dago tarterik kasu horietan. Guk medioei adierazi dieguna da aspaldidanik informazio guinea jartzen dela eta aurreko berrikuntza bezala ostalarien eskutik entregatuko den dokumentua. Gida beranduago jaso genuen eta uste dut Foru Aldundiak ekainean aurkezteko asmoa duela.”

Ametz Arrospide Zubeldia andreak (EAJ-PNV): “Yoliri komentatu nion, gure asmoa zen zuen bidaltzekoa eta adostu genuen testua bidaliko zela, dena batera bidaltzeko asmoarekin. Aldunditik esan zitzaigun aste horretan bidaliko zutela baina ez zein egunetan. Sorpresa izan zen astelehenean aurkeztu zutenean. Guk hori ere ez genekien.”

Publikoan dagoen pertsona batek: “Dekretuak bete egin behar direla esan du Alkateak, baina uste dut ez dela berria inorentzat insumisio garaian bestelako zirrikituak bilatu zirela eta Alkate batzuk beraiek propio erabaki zutela zerrendak ez bidaltzea. Oraingo honetarako ere beste zirrikitu batzuk egongo direla pentsatzen dut.”

Alkate andreak Loinatz jaiak ondo joateko eta ondo ospatzeko desioa azaldu du denentzat.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera gaueko bederatzia bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.